

# TEXTOS DE ANÁLISIS DE KIMUAREN TESTUAK

Euskera: <https://kimua.eus/eu/artikuluak/kategoriak/analisia>

Castellano: <https://kimua.eus/es/articulos/categorias/analisis>

## Osotasunaren nozioaz

**Uztaila 29, 2022**

<https://kimua.eus/eu/artikuluak/osotasunaren-nozioaz>

Bada denbora bat “osotasunaren” auziak ezker iraultzailearen espazio politikoan berriro zeresana ematen duela. Berriro diogu, izan ere, tradizio marxistan erreälitatearen azterketaren eta proposamen politikoaren bizkarrezur izan baita osotasunaren nozioa. Interes berritu hori postmodernitatearen zenbait espresioen aurrean erreakzio gisa azaleratu da, hain zuzen ere, kontakizun handiei eta osotasunari lotutako proposamenen ukapena eterri baita horien partetik. XX. mende erdialdetik aurrera eman den proposamen iraultzaileen bereizketa eta partzializazioa, beste arrazoi askoren artean, tendentzia horiei lotua doazela esan dezakegu. Era berean, ezin uka “osotasunera” buelta hori Euskal Herrian “mugimendu sozialista” bezala ezagutzen denaren garapen teorikoari lotuta doala, jadanik estatu mailan sinkronizatuz doazen beste antolakuntza espresio batzuekin batera, bereziki Madril-Gaztela ardatzean eta Herrialde Katalanetan.

Testu honetan gustatuko litzaiguke “osotasun” kontzeptuaz eztabaidatzea. Ez osotasuna bera analisi kategoria bezala aurkaratzeko (Dominazioa bere osotasunean gainditu nahi badugu, osotasun hori ulertzea beharrezkoa zaigu), baizik eta osotasunaren gainean egin daitezkeen irakurketa hertsia problematizatzeko. Zehazki, “osotasun kapitalista soilaz” mintzatu nahi dugu: hau da, kapitalaren kategorietan soilik oinarritutako osotasunaz. Beraz, gure asmoa osotasunaren konplexutasuna mahai gaineratzea da eta berau ulertzeko eskuragarri izan behar ditugun tresna kontzeptualei buruz mintzatzea.

Horretarako, urte hasieran sareetan irakurri genuen testu batetik abiatuko gara: “*¿Por qué leer El Capital como juventud militante?*”. Testu hori aukeratu dugu “osotasun kapitalista” oinarri hartzen duen lerro politikoaren abiapuntu teoriko eta marko kontzeptualaren sintesi argia eskaintzen duelako. Testuaren hasieran egiten duten diagnostikoarekin bat gatoz: egun ezkerrak bizi duen egoera kaxkarraren arrazoia formakuntza, militantzia eta antolakuntza iraultzailean dauden gabezietau aurkituko ditugu, eta hasieran aipatutako gainbehera postmoderno liberalaren eskutik datozen batik bat. “Gaztelako gazte militante” talde batek sinatutako testua izanagatik ere, Gaztelako

testuinguruaz harago ere existitzen den errealitatea da, Euskal Herrian ez ezik, Estatu espanyiar osoan eta baita Europa mailan ere.

Hau esanda, testuaren mamian sartuz, ondorioztatzen dugu “kapitalismoa osotasun gisa” aipatzen dutenean, egungo jendarteari bere osotasunean egiten diotela erreferentzia; hau da, gaur egungo Dominazioaren osotasunari. Hori hala bada, arazo iturri deritzogu pentsatzeari Marxen Kapitala irakurrita (edota orokorrean kapitalaren kategoriak aztertuta) “osotasun kapitalista” (osotasun soziala) ulertu ahal izango dugula.

Gure ikuspuntutik, osotasun soziala ulertzeko kapitalaren kategoriak ulertu eta aztertea ezinbestekoa da, baina ez nahikoa. Eztabaidaezina da gaur egun kapitalaren metaketaren logikak jendartearren osotasuna azpiratzen duela, baina bere barnean hartzen duen jendartearren osotasunean ez daude harreman sozial kapitalista “hutsak” bakarrik. Esaterako, sexu-genero banaketa patriarchalak jatorri aurre-kapitalista du. Kapitalaren kategoriak aztertuta uler dezakegu nola kapitalak banaketa patriarchala azpiratu eta bere metaketa interesen arabera bideratzen duen, baina ez nola funtzionatzen duen bereizketa patriarchalak berak. Eta ondorioz, ezingo dugu hura erabat gainditu.

Puntu honetan dago gako esanguratsu bat: zein da modernitate kapitalistaren aurretik jaio eta bere barnean, modu batera edo bestera, bizirik dirauten dominazio forma horien izaera? Klase auzia datorkigu ezinbestean: kategoria kapitalistez harago klase soziala nola ulertzen dugun, eta bere adierazpen gaurkotua zein den.

Horretarako, hasteko ulertu behar dugu Dominazio Sistema ez zela kapitalismoarekin jaio. Modernitate kapitalistaren sorrera posible egin zuten baldintzen orokortzea baino lehen existitzen ziren jabetza pribatua, esplotazioa eta egiturazko bortizkeria soziala. Jendartea jadanik bazegoen jabedunen eta desjabetuen artean banatuta; klase sozialak existitzen ziren jadanik. Izan ere, gaurko Dominazio Sistemaren konfigurazioa historian zehar jendartea zatikatzeko existitutako modu anitzen konbinazioaren sintesia da. Banaketa sozialerako modu horietako bakoitzetik, jabetza pribatua ezartzeko forma bat eratortzen da, prozesu produktiboaren kontrola monopolizatzeko eta bizitza sozialaren erreprodukzioa kudeatzeko era bat; gorputzen eta lanaren apropiazio modu bat. Jendartearren zati txiki batek (klase dominatzaileak) gainontzekoaren (klase dominatuaren) existentzia azpiratzeko sortutako jendartea banatzeko moduak dira. Klase bereizketaz ari gara, hortaz; klase sozialez. Ez baitugu ahaztu behar klase jendartea, eta ondorioz, klase auziak, kapitalismoak baino dezente mende gehiago duela. Klase auzia, hortaz, kapitalaz askoz harago doa; azken boladan hainbeste entzunak diren burgesia eta proletalgotik harago.

Hori horrela izanik, jendartea banatzeko historikoki agertu den zatiketa moduetako bakoitza jendartearren barnean ematen den klase tentsioaren isla da, dominazioa egikaritzeko modu potentzialetako bat. Horietako bakoitzak bere barne logika dauka (bereizketa zeren arabera egituratzen den), baina guztiak hartzen dute norabide bera: jabetza pribatua esleitzea; gorputzen, lanaren eta produkzio eta erreprodukzio bitarteko gaineko kontrola, eta guzti horretatik eratortzen den botere sozialaren metaketa. Hortaz, banaketa horietako bakoitzak bere adierazpen material (jabetza eta bizitza sozialaren erreprodukzioa antolatzeko modu zehatz bat) eta kultural eta sinbolikoak izango ditu.

Hau guztia sexu-genero bereizketa patriarkalaren kasuan ikus dezakegu. Banaketa sistema horretan, “gizon-senar” kategoria da, jatorrian pater familias figura juridikoaren bitartez, familia barneko gorputzen eta lanaren kontrola (jabetzarako eskubidea) duena. Modu horretan bereizketa bat sortzen da, zeinetan desberdintzen baitira jabetza patriarkalerako aukera dutenak eta aukera hori ez dutenak, eta ondorioz sexu-genero banaketan desjabetu bezala aurkezten direnak: bereziki emakumeak, baina baita, maila desberdinan, gizon-senar kategoriarekiko ateak itxita dituzten subjektu guztiak: haurrak, homosexualak, transak... Jabetza dutenen eta ez dutenen (desjabetuen) arteko bereizketa klase banaketarako sistema guztiaren ageri da: zatiketa feudalean leinua da jabetzarako eskubidea eman edo kentzen diguna (leinu noblearen jabe direnak, gainontzekoen jaun eta jabe); zatiketa arrazistan, arraza zuria (zuritasunaren jabe direnak, arrazializatuen gainetik); kapitalismoan kapitalaren jabetza (kapitala dutenak, ez daukatenen aurrean). Bereizketa faktore hauek guztiekin, izan genero patriarkala, leinuaren nobletasuna, arraza zuria edota kapitala, ez dira naturalak, erabat sozialki eraikiak baizik: harreman sozialak dira, jendartea antolatzeko modu zehatz bat proiektatzen dutenak (jabetza, lana, produkzioa, erreprrodukzioa). Hortik bere klase sozial izaera.

Hau guztia historikotasunez janzten badugu, ikusiko dugu dominazioaren adierazpen horietako bakoitza baldintza sozial eta material zehatzetan sortzen dela, aldi berean, aurretik datozenen konfigurazioaren emaitza direnak. Hau da, elkarrekiko ezberdinak izanik ere, lotuak daude, ez dira independenteak; osotasun bakar bat eratzen dute. Hain zuzen ere, Dominazio Sistemaren mugen barnean eratzen den osotasuna, aldatuz eta korapilatuz joan dena bai, baina beti zutabe berberen gainean hezurmamitu dena: jabetza pribatua, giza existentziaren azpiratzea (gorputza-pentsamendua-lana-produkzioa) eta botere sozialaren metaketa.

Honaino helduta, gakoa da atzematea nola doazen eratzen klase banaketarako forma berriak, geruza berri bakoitza nola txertatzen den lehenagotik datorren korapiloan, osotasuna nola moldatzen duen, errealtitate estratifikatu berria erdituz. Garai eta leku bakoitzean klase konbinazio hori nola egikaritzen den antzeman behar dugu, zein den klase banaketa bakoitzak testuinguru zehatz horretan hartzen duen indarra; izaera juridikoa mantentzen duen edo de facto jarduten den; zein neurritan islatzen den gorputzetan, pentsamenduan, prozesu produktibo eta errepraktiboan... Finean, banaketa sistema bakoitzak dituen erreprdukzio mekanismoak ulertu eta identifikatu behar ditugu. Hau da, klase sistema horietako bakoitzak batzuen botere posizioa bermatzen duela ulertu behar dugu, eta beraz, botere posizio hori eskuratzentzen dutenen klase interesek bere horretan mantentzen diren bitartean, klase banaketak irauteko duen tendentzia betikotuko da.

Testuaren hasierara itzuliz, argi dago gaur egun kapitalak inoiz ez bezalako indar soziala mobilizatzen duela. Dominazioaren inoizko adierazpen unibertsal eta boteretsuena da. Kapitalaren jabetza dutenek (burgesiak), balio formaren izaera abstraktu eta unibertsalari esker, beraien mesedetara daukate giza existentziaren osotasuna, arraza, genero zein erlijioa dena delarik ere. Kapitalak egun eskaintzen duen botere metaketa gaitasuna ez da giza historian zehar inoiz existitu. Klase banaketa batek inoiz ez die jabedun direnei hainbesteren jabe izateko aukera eskaini. Hori dela eta, esan dezakegu kapitalak egun harreman sozialen osotasuna zeharkatzen duela; kapitalaren metaketak ezartzen duen norabideak jendarteko zirrikitu guztiak betetzen ditu. Hortik

Marx oro har, eta zehazki Kapitala irakurtzearen beharra, kapitalaren kategorien ulerkeran sakontzekoa.

Baina zorroztu dezagun begirada: dominazioaren erraietan kapitalaren kategoriez harago doazen biolentziaren espresioak daude, ezin daitezkeenak kapitalaren kategoria soilez argitu. Ez dute bere horretan osotasun bat osatzen, eta ez dira bata bestearekiko independenteak, kapitala ere ez den bezala. Alderantziz, Dominazio Sistemak modernitate kapitalistan hartzen duen egungo sintesiaren parte dira, eta horiek ulertzea ezinbestekoa da Dominazioa gainditu eta norabide iraultzailean aurrera egiteko: jabetza pribatuak duen sakoneko erroa eta hartzen dituen forma anitzak ulertzeko (kapitalaren gainekeko jabetzaz haratago); mentalitate dominatzailaren egungo konfigurazioa eta osagaiak; lan eta ekoizpen prozesua bere osotasunean egituratzeko modua (lan erreproduktiboa, gainlana, gainekoizpena, gainbalioa); modernitate kapitalistaren jatorria eta ezarpena... Horri guztiari errealtitatearen beste arlo bat gehitu behar zaio, kapitalak esku hartuta ageri zaiguna, baina hala ere bere barne logika eta arauak dituena: materia eta energiaren zikloak eta oro har, lurreko bizitza prozesua.

Ados gaude, beraz, osotasunaren nozioak agertoki politiko-ideologikoaren erdigunea hartu behar duela esatean. Edozein saiakera iraultzileren helburua izan behar da errealtitate soziala era integralean, bere osotasunean, ulertzea eta horren araberako proposamen politiko eta organizatiboa eskaintza. Honakoa, baina, izugarri konplexua den ariketa da. Hori guztia ebazteko kapitalaren kategoriak soilik erabiltzeak irakurketa erreduktionistetara eraman gaitzake, Dominazioaren bazterrak egoki ulertzea baino, errealtitate sozialaren interpretazio egokia are gehiago zaildu dezaketenak.

# Ziztadak, biolentzia patriarkala eta autodefentsa feminista

Abuztua 23, 2022

<https://kimua.eus/eu/artikuluak/ziztadak-biolentzia-patriarkala-eta-autodefentsa-feminista>

Ziztaden inguruan uda honetan gertaturikoak agerian uzten du emakumeon gaineko biolentzia sistematikoak birstortzen jarraitzen duela, eta forma berriak hartzen. Izan sumisio kimikoa eragiteko ziztadak, izan emakumeon artean beldurra zabaltzeko ziztadak (biak ala biak bortxaketa bezala identifikatzen ditugu), begi bistakoa da fenomeno hau ezin dela soilik kapitalaren kategorien bitartez ulertu, ezta ezaugarritu ere. Gertakarion arrazionalitatea logika patriarkala ere kontuan hartuta soilik antzeman daiteke: emakume gorputzak gizonen jabetza eta botere esparru bezala aurkeztearen ondorio bezala bakarrik gerta daitezke horrelakoak. Hau da, jabetza eta botere metaketa patriarkalaren adierazpen bezala bakarrik uler genezake ziztaden fenomenoa bere osotasunean. Horrelakoak ez direlako portaera irrazionalak, ulergaitzak, zoro batzuek egindakoak. Bortxaketaren kulturaren gainontzeko adierazpenak bezala, logika eta arrazionalitate patriarkalari erantzuten diente.

Bestalde, hasiera hasieratik ikusi dugu zein den Estatuak arazoari eman nahi izan dion irtenbidea: poliziaz bete jaietako sozializazio guneak. Saiakera horrek, txosnaguneetan bereziki, talka ugari eragin ditu, aurreko astean Algortan ikusi genuen bezala Eusko Jaurlaritza eta Ertzaintzaren jarrera oldakorraren eskutik. Bereien kontraesan eta gabezia guztiekin (eta ez dira gutxi), txosnaguneak auto-antolakuntza eta herri boterearen adierazpen bat dira, urteetan zehar autodefentsa feministarako mekanismo eta protokoloak garatuz joan direnak. Estatuak espazio horietan eskua sartzeko eta ahal den heinean horiek desmantelatzeko aitzakia bezala hartu du ziztaden afera. Horren guztiaren aurrean, emakumeok era autonomoan antolatzeko aldarria geure egiten dugu: auzo eta herrietako asanblada eta talde feministetan parte hartzeko deia luzatu, autodefentsa feministaren garapen eta saretzean aurrerapausoak emateko konpromisoa hartu.

Azkenik, gizonei ere galdegin behar diegu: zuen parte hartea jendarte patriarkal batean ez da neutrala. Gizon bezala sozializatuak izan zaren heinean, botere eta jabetza patriarkalarekiko sarbidea daukazue: bortxaketen kasuan, emakumeon gorputza xurgatzeko, zuen jabetza bilakatzeko, posizio sozialean kokatuak zaudete. Bortxaketa edo eraso fisiko "zuzenez" haratago, mentalitate dominatzaile patriarkaletik eratorritako jarrera eta pentsamenduen multzoa zuen pertsonalitatearen sakonean errotuta daude. Horren kontzientzia izan ala ez, norabide horretan aktiboki jardun ala ez, egiturazko ezarpen bat da.

Botere posizio hori, baina, ez da gertakari naturala; kulturalki, sozialki eraikitako baldintza bat baizik, eta hori albiste ona da: gainditua izan daiteke. Hala ere,

espontaneoki sortua ez den bezala, ez da bat-batean desagertuko. Despatriarkalizazio prozesu aktibo eta kontziente baten bitartez bakarrik gainditu daiteke. Ezinbestekoa da denok ulertzea ziztaden kasuan eta oro har biolentzia patriarkalaren kasuan, ez dela emakumeon arazo bat edo genero disidentziarepa. Gizon heterosexualek ulertu behar duzue bereziki zuen arazoa dela, zuen arazo bilakatu behar duzue; eta despatriarkalizaziorako bideari ekin. Zuen bizitza denbora eskaini, horretaz arduratu. Bakarrik horrela egin ahal izango diogu aurre errealki eta era integral batean patriarkatuaren gaindipenak suposatzen duen erronkari.

# **Ikuspegi estrategikoaz eta munduak egun bizi duen koiunturaz hainbat gako**

**Urria 6, 2022**

<https://kimua.eus/eu/artikuluak/ikuspegi-estategikoaz-eta-munduak-egun-bizi-duen-koiunturaz-hainbat-gako>

Azken boladan gero eta ohikoagoa bilakatu da “garai historikoak” bizi ditugula entzutea. Kaletik goazela, masa komunikabideetan, etxeko igogailuan edota famili bazkarietan, denen ahotsetan dago zerbait potoloa gertatzen ari dela: gerra, pandemia, inflazioa, aldaketa klimatikoa, faxismoaren gorakada... “Krisi” hitza bera, ematen du bere garaian zuen xarma hori galdu duela eta orain abizena jarri behar diogu egungo egoeraren larritasuna isla dezan: oraingoa ez da krisi arrunta, hau “krisi zibilizatorioa” da. Mundua pikutara doala ematen duen honetan, ikuspegi estrategikoaz, denbora historikoaren ulerkeraz eta oro har egungo mundu mailako egoeraz egiten dugun diagnostikoan sakonduko dugu ondorengo testuan.

*Denbora historikoa ez da lineala, ez da homogeneoa*

Egunak 24 ordu eta urteak 365 egun dituela diogunean, egun eta urte guztiak berdinak izango balira bezala aritzen gara. Denbora abstraktua, homogeneoa eta hutsa den fenomeno bezala tratatzen dugu: 24 ordu horiek berdinak dira orain Euskal Herrian edo Indonesian; 1936ko uztailak 18an Spainian edota 1917ko azaroak 7an Petrograden; duela 2023 urteko udako egun batean edota duela 1.000.000 urtekoan. Kontua da egun bakoitzak 24 ordu horiek izan badituela, baina horietaz gain, ordu, egun eta urte horiek guztiak edukiz beteak direla, eduki zehatz eta heterogeneoz beteak, alegia. Abstraktuki neurtu eta berdindu ditzakegun denbora unitate horiek, eduki kualitatiboari erreparatuz gero, ezberdinak dira elkarren artean. ETAK Carrero Blancoren kotxea leherrarazi zueneko segundo hori, erloju batekin neurten badugu, aurreko segundo guztien berdina da. Denbora historikoan txertatuta, ordea, denok dakigu barnebiltzen dituen esanahi eta implikazioak. Segundo horrek izaera kualitatibo ezberdina du, Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko historia goitik behera baldintzatu zuena. Segundo horretako eduki zehatz hori gauzatu izan ez balitz, beste gauza askoren artean, gu, segur aski, ez ginen hemen egongo.

Hortaz, denbora historikoa ez da homogeneoa, ez dago hutsik. Efemeride ezberdinak gogoratzen ditugunean jabetzen gara egun guztiak ez direla berdin, urte guztiak ez direla berdin: altxamendu bat, matxinada bat, iraultza bat, krisi bat... Horrelakoetan denbora historikoa zabaldu, moteldu eta kondentsatu egiten da. Egun bakar batean gauza asko gerta daitezke, aurretik ezinezkoak ziruditenak eta ondorengo urteak edota hamarkadak baldintzatu ditzaketenak. Leninek zioen bezala: “hamarkada batzuetan ez da ezer gertatzen eta aste batzuetan hamarkadak gertatzen dira”. Horrek ez du esan nahi momentu horiek ezerezetik datozenik: aurretik metatuz joan diren baldintzek sortzen dituzte momentu horientzako aukera. Hala ere, abagune horietan askatzen den potentzia

soziala, bakarrik momentu horietan probestu daiteke: arinago ez da egon eskuragarri, eta ondoren beste forma bat hartuko du. Disolbatu daiteke, edo ondo probestu bada, maila gorenago bat hartu. Iraultzaileon ardura da denbora historikoa ondo irakurtzea, segundo garrantzitsuei adi egotea eta bereziki, segundo bat garrantzitsu egin dezaketen baldintzak eraikitzen joatea.

### ***Chronos, kairos eta momentum***

Grezia klasikoan bi kontzeptu zituzten “denbora” adierazteko: bata *chronos*, bestea *kairos*. *Chronos* adierak denboraren izaera kuantitatiboari egiten dio erreferentzia, sekuentzia kronologikoari, eta barnebiltzen duen edukia, beraz, kuantitatiboa da. Zenbat denbora igaro da? Asko edo gutxi erantzun dezakegu. *Kairos*-ak, aldiz, denboraren izaera kualitatiboari egiten dio erreferentzia: zein da denbora egokia? Ekintzarako aukera aproposa adierazten du. *Kairos*-ean ekiten dugunean, testuinguru zehatz batek barnebiltzen duen potentzial guztia aprobetxatu dezakegu.

Grezia klasikoan batez ere Erretorikan erabiltzen zen *kairos* kontzeptua: hau da, eztabaidea batean ikusleak konbentzitzeko esan beharreko argudio gakoak momentu zehatz batean esan behar dira. Arinago edo geroago esanez gero, efektua ez da berdina izango. Metafora gaur egunera ekarriz, surflari batengan pentsa genezake: olatu bat hartzean dagoenean, momentu egokia baino lehenago hasten bada igerian, olatua bere atzean apurtuko da. Ez dio ardura zenbat indar egiten duen, olatuak zekarren indarra atzean geratu zaio eta ezingo du aprobetxatu. Era berean, beranduegi hasten bada, olatua bere aurrean apurtuko da eta surflariak bere lekuak jarraituko du, mugitu gabe. Momentu egokian hasten bada igerian, ordea, oso indar gutxi eginda, olatuak dakarren indar guztiarekin bat egingo du eta metro asko aurreratu ahalko ditu. Igerian hasteko momentu zehatz egoki hori da *kairos*-a, hain zuzen ere.

Denbora eta gertakarien garapenarekin lotua doan beste kontzeptu gako bat *momentum*-a da. Fisikatik datorren kontzeptua da: objektu batek mugimenduan jarraitzeko duen joera. Hala ere, arlo politikoan eta militarrean asko erabiltzen da (batez ere ingelessez): behin martxan jarri dela, ekimen edo prozesu bat aurrerapenak egiten jarraitzea posible egiten duen kualitatea litzateke *momentum*-a. Esate baterako, Ukrainako gerran, lehenengo egunetan Errusiak, gaitasun militar hobea zuela eta armada ukraiñiarra ustekabeen harrapatuta, *momentum*-a irabaziz joan zen. Horrek lurralde eta hiri ugari hartzea ahalbidetu zion. Puntu batetik aurrera, ordea, aurrerapen horiek eten ziren (Kiev eta Kharkov hirietan, esaterako), hasierako *momentum* hori galduz. Armada errusiarrak atzera egin behar izan zuen, bere indarrak ordenatu eta gerraren bigarren faseari ekin: Donbaseko ofentsiba. Bigarren fase horrek ezaugarri ezberdinak ditu, eta beraz, *momentum*-a erdiesteko jarraibidea ezberdina izango da. Surflariaren kasuan, behin olatua hartuta, berau ondo surfeatzeko abilezia erakutsi beharko du. Modu horretan, hasierako *kairos*-a *momentum* bilakatu dezake.

Testuinguru militarretik haratago, historian egon den edozein prozesu iraultzaile, eta oro har, mugimendu politikoren garapena eta arrakasta/porrota aztertzerako orduan, lagungarri egingo zaizkigu hauek bezalako kontzeptuak. Esate baterako, Kataluniako procés bezala ezagutu zena, *kairos-momentum* ziklo ezberdinak kateatzen jakin izan zuelako bakarrik izan zen gai hartu zuen dimentsioa hartzeko. 2009an herri batzuetan galdeketak egiten hasi zirenean inork gutxi asma zezakeen 2017ko urrira arte mugimendu hark lortuko zuen arrakasta eta suposatuko zuena Herrialde Katalanen

historian. Hastapen xume horietatik abiatuta, koiunturak eskaintzen zituen abaguneak ondo irakurri eta horietan ekiteko gaitasunak, salto kualitatibo ezberdinak kateatzen joatea ahalbidetu zien. *Kairos-momentum* ziklo bakoitzarekin muga batzuk gainditu eta berri batzuk ezartzen ziren, hurrengo zikloarekin azken hauek gainditu eta berri batzuk ezartzen zirelarik. 2017ko urrira heldu arte. *Kairos* horrek galdegiten zuen salto kualitatiboa emateko gai izan edo prest egon ez eta hor jo zuen goia prozesu politiko horrek. Hortik aurrerakoa, *momentum-a* galdua eta egoerari buelta eman ezinik, goitik beherako desintegrazio prozesua agerikoa izan da.

### *Ikuspegi estrategikoa garatzearen garrantzia*

Denbora politikoak badu bere *chronos-a*, gauzak gertatzen ari dira etengabe. Gure herri eta auzoetan, Euskal Herrian, munduan, milaka gauza gertatzen ari dira. Ez bagara gai begirada zorrotz bat garatzeko, denbora fenomeno homogeneo bezala ulertuko dugu, dena berdin izango balitz bezala, forma zehatzik gabeko gertakarien agregazio soila. Gure baitan kaosa, noraeza eta ezintasuna eragingo du horrek. Gakoa da etengabetasun horretatik haratago ikusteko gaitasuna izatea, *kairos-a* identifikatzeko gai izan eta bertan ekiteko prest egon. Ikuspegi estrategikoa garatzeaz ari garenean, honi buruz ari gara.

Era berean, ikuspegi estrategikoa ez da bakarrik momentu egokia identifikatzen jakitea, baizik eta momentu hori aprobetxatu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak aldez aurretik prest izateko erabakiak hartzen jakitea. Eta gehienetan *kairos-ak* zer ezaugarri izango dituen jakin gabe ekin behar diogu baldintzok eraikitzeari. Pandemiarekin argi eta garbi ikusi da hori, inork ez baitzuen aurreikusi horrelakorik etorriko zenik.

Salbuespen egoera gainera etorri zitzaigun horretan, soilik gaitasun organizatibo, ideologiko eta komunikatiboak prest zituztenentzat azaldu zen pandemia *kairos* politiko bezala. Horregatik ulertu behar dugu *kairos-a* ez dela absolutua: bakoitzak dituen helburu eta gaitasunen arabera, testuinguru zehatz batek potentzial bat edo bestea eskainiko dio. Honi guztiari, *momentum-aren* nozioa gehitu behar diogu. Izan ere, olatua momentu egokian hartzen badugu, baina ez badaukagu berau surfeatzeko abilezia nahikorik, gure saiakera ezerezean geldituko da. *Kairos-a momentum* bilakatzeko gaitasunean datza mugimendu politiko baten arrakasta.

Bai *kairos* zein *momentum* kontzeptuek denboraren izaera erlatiboa azpimarratzen digute. Badaude garai eta egoera batzuk, zeintuetan denborak dentsitate handiagoa hartzen duen. Horietan ondo jarduten badugu, gure hitzek eta gure ekintzek indar eta gaitasun gehiagorekin eragingo diote errealtitate sozialari. Gure inguruari begiratuz gero, garai horietako baten bizi garela ohartuko gara.

### *Ongi etorriak kairos zibilizatoriora*

XX. mendea Sobietar Batasunaren erorketarekin amaitu zela esan ohi da. Nahiz eta 1991. urtean gertatu zen, XX. mendea konfiguratu zuen mundu mailako errealtitate ekonomiko eta geopolitikoa agortutzat eman zitekeen. Erorketa horrek ziklo berria zabaldu zuen: globalizazioa, erreforma neoliberalaren hedapena, mundu unipolarra (EEBB-Mendebaldea), demokrazia burges-liberalaren hedapena, “terrorismoaren” aurkako gerra mundiala, kapitalismo fosilaren “business as usual”-aren sakontzea... Berez, ziklo berri hori Gerra Hotzaren azpi-ziklo bezala uler genezake, ez baitzen ezer bereziki beririk eman: aurreko zikloan lehian zegoen indarretako batek irabazi zuen eta

ondorioz, bere eredu mundu mailan hegemoniko bihurtu zuen. Hortaz, azken hiru hamarkadak XX. mendeko epilogoa izan direla esan dezakegu.

2008ko krisi finantzarioarekin epilogo hori arrakalatuz joan zen eta urteak aurrera egin ahala, bere agortzearen seinaleak nabariak dira: 14 urte geroago, kapitala oraindik ez da gai izan mundu mailako akumulazio ziklo berri eta sendoa abiarazteko. Modernitate kapitalistak gaur egun hartzen duen konfigurazioari gero eta muga gehiago ageri zaizkio, egungo konfigurazio horrekin gaindiezinak egiten zaizkionak. Horrez gain, muga horien izaera, aniztasuna eta sakontasunari erreparatzen badiegu, argi geratzen da uhin luzeko ziklo baten itxieran gaudela. Alegia, ez delaurrekoa bezalako azpi-ziklo bat, aurretik datozen aldagaien birkonfigurazio txiki batekin martxan jarri daitekeena. Hamarkadetan zehar (batzuk industrializazioaren hedapenetik), metatuz joan diren tentsio puntu ezberdinek bat egin dute gaur egun, askok “zibilizazio krisi” bezala izendatzen duten honetan. Ikusi ditzagun, gainetik bada ere, zeintzuk diren tentsio puntu nagusiak:

**- Oinarri material eta energetikoak.** Erregai fosilen agortzea errealtitate ukaezina bilakatu da eta horren aurrean, trantsizio energetikorako saiakeran murgildua dago kapitalismoa. Horrekin batera, kapitalaren metabolismorako beharrezkoak diren oinarr material eta energetikoen birkonfigurazio mundiala ematen ari da. Hemen dugu modernitate kapitalistak aurrean duen erronka nagusietako bat, zalantzak gabe ebazpen korapilatsu eta gatazkatsua izango duena. Alde batetik, kapitalaren fakzio batzuk egungo kapitalismo fosilaren jarraipenean berresten direlako eta trantsizioa ahalik eta gehien moteltzen saiatuko direlako. Beste alde batetik, ikusteko dagoelako ia benetan posiblea den, burgesia berdeak defendatzen duen bezala, horrelako trantsizio eta birkonfigurazioa burutzea egun munduak duen kontsumo eta hazkunde maila mantenduz. Eta hori posible ez balitz, ondorioak agerikoak izango lirateke: besteak beste, kapitala metatzeko aukera murriztuko litzateke, konpetentzia (eta gerra) interburgesa areagotuz; edota jendartearen bizi baldintzek behera egingo lukete nabarmen, batez ere erdigune imperialistan.

**- Ekologia.** Krisi ekologikoak itzulbiderik gabeko joera hartu du eskala planetarioan eta bere dimentsio guztietan: krisi klimatikoa, biodibertsitatearen galera, atmosfera, ozeano eta lurrauren kutsadura... “Ingurumen” arazo bat izateaz haratago, mundu mailako larrialdi ekologikoaren ondorioz populazio osoen biziraupena kolokan dago, baina baita kapitala metatzeko baldintza egokien egonkortasuna ere.

**- Ekonomia.** Ikuspuntu ekonomikotik elementu ugari azpimarra ditzakegu. Krisi finantzario osteko hamarkada galdua eta pandemiaren ondoren, “austeritatean” oinarritutako bideorri neoliberala agortua dirudi. Aldi berean, ordea, neokeynesianismoa edota formula sozialdemokratak aplikatzeko mugak gero eta agerikoagoak dira. Estatuen zorpetze tasa ikaragarri handia da eta inflazioaren gorakadak amaiera eman dio dirua “debalde” zeneko garaiari: dirua inprimatzeko makina eten egin behar izan dute. Izan ere, goian aipatutako energia eta materialen krisiari irtenbide bat eman ezean, estatu kapitalistak inflazio altua eta hazkunderik gabeko zurrubrido batera kondenatuak egongo dira.

Dena delakoarekin, arinago edo motelago, bitarteko produktiboen garapenean tendentzia argi bat nagusitz joango da, laugarren iraultza industriala izenarekin ezagutzen hasi dena: digitalizazioa, gauzen interneta, inteligentzia artifiziala,

errobotizazioa, automatizazioa... Horrek ondorio ugari izango ditu kapitalaren konfigurazioan. Alde batetik, lan-indar masa handiak soberan geratuko dira, gero eta debaluatuagoak, eta faktore produktibo bat izatetik, kudeaketa arazo bat izatera pasatuko dira. Bestetik, kapitalaren konposizio organikoaren handitzeak (prozesu produktiboan makinak gero eta proportzio handiagoan egotea, lan-indar kantitatearekin konparatz) akumulazio krisia areagotuko du: gero eta zailagoa izango da kapitala errebalorizatzea errentagarritasun tasa egokietan.

Honekin guztiarekin, erdigune imperialistako langile klasearen pauperizazioa areagotu baino ez da egingo, klase ertain deiturikoak sostengatzeko baldintza materialak agortuz joango baitira. Behinola burgesiak langile klasearen sektore handi baten obedientzia erosteko zeukan mozkin-marjina gero eta estuagoa bilakatuko zaio.

**- Politika.** Demokrazia burges-liberalak zilegitasuna galdu duela nabaria da eta horrek eragin duen faxismo berrien gorakada, ukaezina. Europan behintzat, egonkortasun bipartidistaren garaia (demokristauak eta sozialdemokratak txandakatzen zirenko) amaitutza eman dezakegu, zatikatze eta inestabilitate politikoa areagotuz. Aldi berean, modernitate kapitalistaren bizkarrezur politikoa izan zen Nazio-Estatua agortze sintomak erakusten dabil eta mundu mailako korporazio handiekin (Google, Apple, Amazon) duen lehia areagotzen dabil. Horren aurrean, jendarte kapitalista administratzeko kudeaketa figura berrien agerpen posiblea sumatu dezakegu: Korporazio-Estatua. Neofeudalismoa bezalako kontzeptuak gero eta entzunagoak diren garai hauetan, argi ikusten dugu gure bizitzen gero eta aldagai gehiago Korporazio-Estatuen baitan administratzeko joera nabarmenduz joango dela.

**- Kultura.** Mendebaldeko kultura zibilizatorioa dekadentzian dagoela ez da sekretu bat. Erlilio tradizionalen desintegrazioak erreferentzia etiko-moralen desagerpena eragin du populazioaren geruza askotan. Erreferentzia horietako asko desagertzea komeni zen, baina horien ordez, ez da lortu bestelako erreferentzia askatzaile arrakastatsurik eraikitzerik, eta horrek hutsune espiritual eta emozionala orokortu du. Noraez existenciala gero eta nabariagoa da, denetariko joerekin: hedonismoa, nihilismoa, depresio eta suizidioak, *konspirazionismoa*, *magufismoa*...

Aurrekoarekin lotua, kolonialismoak mundu mailako kulturen homogeneizazioa ekarri eta identitate globalizatu berriak eraiki ditu: erabat merkantilizatuak, izaera “likidoa” dutenak, lurralde zehatzeko deslotuak, herri kulturetak eta komunitateetatik deskonektatuak, teknologia eta sare sozialekiko dependienteak (eta beraz, horiek kontrolatzen dituztenen enpresekiko dependienteak). Identitateen eredu horrek identitate krisian eta noraezean sakontzea baino ez du eragin.

**- Geopolitika.** Globalismoa eta multipolaritatearen arteko lehian Asia-Indiko ardatzaren gorakada ematen ari da, Txina buruan doala. Mundu garatu eta azpigaratuauren arteko distantzia (bitarteko produktiboen garapenari begira) murriztuz doan heinean, aspirazio eta gaitasun imperialistak izan ditzaketen potentzia berrien agerpena ematen ari da, konpetentzia interburges eta interimperialista areagotuz. Bestalde, aurreko tentsio puntu guztien adierazpen sakonena Europar Batasunean ematen ari den heinean, mendeetan zehar munduan izan duen lekua, erdigune imperialistako erreferentzia espazio bezala, kolokan dago.

**- Pandemia.** Aurreko tendentzia gehienetan katalizatzaile bezala jardun du, denbora historikoa azeleratuz. Horrez gain, pandemiak berak bultzatutako etxeratzeak eta distantziamentu soziala, kontrol sozialaren areagotzea, osasun sistemak jasandako kolpea eta oro har bi urte luzez eman diren salbuespen egoeraren normalizatzeak, aldaketa kualitatiboa eragin du jendartean. Inflexio puntu bezala jokatu du.

Goiko guztiari erreparatuta, mundu mailako koiuntura analisiaren ondorioa honakoa da: modernitate kapitalistaren zibilizazioak momentu kritikoa bizi du, segur aski azken 150 urteetan bizi izan duen kritikoena. *Kairos* zibilizatorio bat irekia dago, ziklo luze berri baten irekiera seinalatzen diguna: XXI. mendea izango denaren oinarriak eraikitzen dabilta une hauetan. Ezin dugu jakin *kairos* horrek zenbat iraungo duen, ezta zelan itxiko den ere. Argi dagoena da orain bizi ditugun egun eta urteak berebiziko esanahia hartuko dutela denbora historikoan. Begirada zorrozteko garaian gaude, beraz: ikuspegi estrategikoan sakontzeko garaia, saretu eta antolatzeko, indarrak batzeko, egunerokoan gure auzu eta herriekin ekin, jardun iraultzailean sakontzeko garaia. Ez da zain edo begira egoteko garaia. Zalantzak ez dago abagune historiko baten aurrean gaudela, baina abagune horren izaera iraultzailea soilik potentzialitate bezala aurkezten zaigu. Oraindik ez da gauzatu, eta ez da zertan gauzatu. Argi izan behar dugu sistemaren krisi larri batek, kolapso batek muturreko aukera bezala, ez duela espontaneoki bizi dugun egoera hobetuko. Are gehiago, kolapsoaren espontaneitateak basakeria are gordinago baterantz bultzatuko gaitu: kapitalismoak gordetzen dituen miserien askatze are kaotikoagoa baterantz. Hori baita faxismoa, deskonposizio fasean dagoen kapitalismoak hartzen duen forma naturala.

Ezinezkoa zaigu asmatzea gainean dugun garai historikoak zernolako norabidea hartuko duen, zernolako gertakariak emango diren, non agertuko diren abagune zehatzak, ezta nola aprobetxatu. Hala ere, gauza bat argi izan behar dugu: gertakariok norabide askatzailea hartuko dutenaren berme bakarra gure eskuetan dago, norabide iraultzaile horretan jarduteko prestasuna dugun ororen eskuetan. Ez dugu beste inon aurkituko.

# Emakumeok lehen lerrora. Marko Autonomoen abangoardiaren beharraz

Azaroa 22, 2022

<https://kimua.eus/eu/artikuluak/emakumeok-lehen-lerrora-marko-autonomoen-abangoardiaren-beharraz>

*\*Hasierako argipena, genero disidenteei zuzendua: testu hau idatzi dugunok emakume bezala sozializatuak izan gara eta jendartea emakume bezala irakurtzen gaitu. Nabaria da hortik idatzi dugula.*

*Zentzu horretan gure testua hankamotz dago. Izan ere, emakumeaz gain, genero disidentziaren kategoria politikoa dagoela ulertzen dugu. Dominazio Sistemaren espresio patriarkalak biolentzia espezifikoa erreproduzitzen du zuen gain: ez duzue, emakumeok ez dugun bezala, botere patriarkala egikaritzeko baldintza material eta sozialik.*

*Hori dela eta, emakumeak eta genero disidenteak lubaki berdinean gaudela uste dugu. Testuan zehar garatuko dugun marko autonomo eta hauen abangoardian paper oso garrantzitsua duzuela pentsatzen dugu. Gaur gaurkoz, alabaina, Kimua barnean ez dago genero disidenteik. Ez dagokigu guri zuen izenean hitz egiterik, urrun gaude zuen larruazalean bizi dituzuen esperientziak bizitzetik, bai eta honetatik garatu dezakezuen analisia egitetik ere. Beraz, ongi etorriak zarete, ekarpenak gehitzera eta gurekin bat egitera ere.*

---

Ez dago iraultza posiblerik, emakumerik gabe.

Baieztapen horrekin hasten dugu gaurko artikulu hau, hurrengo lerroetan zehar garatuko duguna. Era berean, iraultza prozesuan emakumeok izandako paperaz, marko autonomoen beharraz eta hauen abangoardiaz arituko gara.

Aurrekoan bezalako baieztapen irmoa egiterakoan, analisi bat garatzeko beharrarekin aurkitzen gara. Iraultzaz pentsatzean, burura etortzen zaigun lehen aurpegia ez baita emakumezkoa. Prozesu iraultzaileen historiografiari so egitean konturatuko gara emakumeok betetako paperari ez zaiola ikusgarritasunik eman. Gehienetan, lehen lerroko posizioetatik urrun, iraultzaren biziraupenerako beharrezkoak izan diren ezkutuko lanetan eman dugu bihotza eta bizitza. Hau azaltzeko arrazoi ugari daude, eta denak patriarkatuan errotzen dira: izan gure sozializazioagatik ez garelako indarrekin topatu geure burua lehen lerroan kokatzeko; izan lehen lerro hori hartzerakoan inertzia sozialek gidatuta, kolektiboak gutxietsi egin gaituelako edota espacio horietan ez garelako erosu eta seguru sentitu; izan zaintza lanek oztopatu egin digitelako paper

aktibo bat hartzea militantzian... emakumeak bigarren lerroan kokatuak izan gara prozesu iraultzaileetan.

Lehenik eta behin, emakumeok teloiaren atzean egindako lana goraipatu nahiko genuke; milioika emakume anonimorenengatik ez balitz, ezinezkoa izango bailitzateke iraultza pentsatu ere egitea.

Izan ere, jendartearen lan-indarraren erreprrodukzio domestikoan espezializatu gaituzte eta testuinguru patriarkaletan jokatzen dugun rola errepikatu da prozesu iraultzaileetan ere: osasun-langile lanak egin izan ditugu; kideen sostengu fisiko, emozional eta sexuala bermatu izan dugu; familia aurrera eraman izan dugu etxeko gizonak frontean, klandestinitatean edo sasian zeudela...

Honekin adierazi nahi duguna zera da, historiako pasarteek militante armatu ikonikoak gogora ekartzen badizkigute ere, edozein prozesu iraultzaile kolektiboa dela, mota guztiako lanen konbinaketaren emaitza. Hura aurrera eramateko ezinbesteko baldintza izan da emakumeon lan ezkutua; horren balioa azpimarratu nahi dugu.

Era berean, gogora ekarri nahi ditugu esperientzia iraultzaileen bidezidorretan protagonismoa izan duten emakume guztiak; bakar batzuk, gutxiengoak, lehen lerroan aritu direnak eta iraultzaren gidaritzan parte hartu dutenak, historiarenean orrialdeetan dauzkagu. Asko izan dira, era berean, prozesu iraultzailean antolakunde ez mistoetan militatzea hautatu duten emakumeak, autonomia osoa zutenak; edota antolakunde politiko edo militarren estrategiaren pean, modu ez-mistoan antolatu izan direnak.

Emakume hauek eredu bezala hartu eta iraultzan eman diren inertzia patriarkalekin apurtzeko ordua heldu da: iraultzaren lehen lerroa hartzekoa. Baino ideia horren inguruau sakondu aurretik, emakumeok iraultzan hartu beharreko paperaz hausnartzeko, iraultza bera zer den definitza dagokigu. Iraultza prozesu integral eta sakona da; gure oinarrizko liburuxkako zita ekarriz: *Errealitate sozialaren baitan ematen diren biolentziak harremanak identifikatu, berauek osotasun bezala ulertu eta osotasun hori errotik gainditzeko helburua dukan prozesu politiko konplexua da iraultza. (...)* *Zerumuga estrategikoa (...) dominazio ororekin amaitzea da, esplotaziorik gabeko jendarte askea eraikitza; inolako klase banaketarik gabe, genero eta arrazakoak barne. Eta horretarako, dominazioaren errora jo behar dugu: jabetza pribatua eta harekin batera datorren dominazioaren mentalitatea, gurean pentsamendu liberal-burges, patriarkal eta arrazistaz osatua dagoena.*

Ulertu behar da, beraz, Kimuaren helburu estrategikoaren baitan dagoela mentalitate dominatzailea eraistea. Hori da gure erroetako bat iraultza egikaritzeko.

Izan ere, gure izaeraren eraikuntzan Dominazio Sistemak balio marko bat ezarri du, eta egunerokoan birproduzitzen ditugun pentsamendu eta jarrerak Bizitza Askea eraikitzeko oztopo dira. Beraz, ezinezkoa da balio marko eta jarrera horiek aldatu gabe, dominaziozko harremanak birproduzitzen jarraituz, inolako iraultzarik gauzatzea, ez behintzat guk iraultza ulertzen dugun moduan.

Helburu horren erdiespenerako, gainera, ez dugu etapismo batean sinesten: ez dugu uste bideragarria denik behin “Neguko Jauregia hartuta”, kultura parekiderako proposamen politikoa ezartzen hastea; iraultzaren beraren arrakastarako eta Bizitza Askerako

ezinbesteko pausotzat jotzen dugu gaurtik mentalitate dominatzailea lurperatzeko eremua aitzurtzea.

Hau azaltzea ezinbestekoa da, iraultzaren ulerkeraren arabera, emakumeon papera aldakorra izan daitekeelako. Beraz, argi utzi nahi dugu: iraultza ezinezkoa da gurekiko biolentziazko harremana eta hori bermatzen duen mentalitate dominatzailea ezabatu gabe.

Helburu hori lortzeko baldintza emakumeok prozesu iraultzailean sakontzea da. Emakumeok bakarrik hausnartu, diseinatu eta gidatu dezakegulako gure biolentziaren aukako borroka. Eta bakarrik prozesu iraultzaileak eskainiko dizkigulako borroka hori burutzeko tresna eraginkorrapak.

Hala ere, aipatutako sakontze hori ez da ausaz etorriko; emakumeok, subjektu debaluatu historiko moduan, zaitasunak eduki baititugu kultura militanterako saltoa emateko eta modu proaktiboan parte hartzeko, aurretik aipatutako arrazoi guztiak direla medio. Antolakunde iraultzaileetan emakumeok gutxienekoak izan gara, parte hartu dugunean gure papera ez da ikusgarria izan eta sukaldeko lanera mugatu izan gara.

Beraz, espontaneoki gertatuko ez den prozesua izaki, kontzienteki eta gure esku dauden erreminteaz baliatu beharko dugu emakumeon militantzia indartzeko. Horietako bat marko ez-mistozen sorrera da. Historian zehar asko izan dira estrategia iraultzaile beraren pean modu ez mistoan antolatzeko beharra ikusi duten emakumeak. Gaur egun Euskal Herrian ere honen adibide diren taldeak ditugu: mugimendu sozialistaren lerroan kokatzen den Itaia edo Jardunen barruan dagoen ekimen feminista. Azpimarratzekoak ere, Euskal Herriko Bilgune Feminista, esparru ugarietako emakume asko eta askotarikoen hausnarketak biltzen dituen egitasmoa. Izendatu gabe ezin utzi organikoki antolakundeekin loturarak ez duten eta mugimendu feministan antolatzen diren talde ez-mistoak, modu guztiz independentean jarduten dutenak.

Kimuan ere honen sorreraren beharra ikusi dugu: emakumeon egitura autonomoa.. Gure ustez, arrazoi asko ditugu horrela antolatzeko:

Alde batetik, gizonik gabeko erabakimen espazioak generoaren araberako botere dinamikarik gabeko esparrua errazten du, eta bertan dihardugun kideon parte hartzea eta ahalduntzea bultzatu, beste modu batean militantzian implikatuko ez liratekeen kideak batzea ere baimenduz. Erabakimen espazio propio horrek ahalbidetzen digu estrategiaren lanketa, normalean gure irismenetik kanpo geratzen dena, guk geuk gauzatzea: erabaki eta diseinu estrategikoa eta horren aplikazio taktikoa garatu eta proposatzea eta honekin batera, agenda propioa diseinatu eta gure erritmo propioak markatzea. Bestetik, egitura autonomoak bermatzen du espazio mistoan emakumeon ahotsa kolektiboki ordezkatua egotea, gure hitzari individualki hartuko ez lukeen transzendentzia eta oihartzuna emanez.

Bukatzeko, marko honen betebeharra Kimuan parte hartzen duten gizonen despatriarkalizazio prozesua ziurtatu eta gainbegiratzea ere bada; betiere prozesua aurrera eramatearen lan karga gizonei esleituz. Alabaina, ez dugu uste egitura autonomoa sortzearekin nahikoa denik. Genero disidente zein emakumeok egitura ez misto horiek baliatuz, prozesu iraultzailearen abangoardia izan behar dugula ere sinesten dugu.

Abangoardiaz ari garenean, lehen lerroa hartzeaz ari gara, jatorrizko *avant-garde* hitz frantsesak dioenarekin bat. Leninismo autoritarioenetik datorkigun abangoardiaren ulerkeratik urrun, ez dugu abangoardia “Egia absolutuaren” jabe denarekin lotzen. Lehen lerroa hartza, jendartean ohikoa ez den konpromiso eta ardura militantea hartzearekin lotzen dugu. Dominazioaren munduarekin hautsi eta paradigma politiko berri baten proposamena mahaigaineratu eta horretan lanean diharduena. Iraultzarako grina, zapaltzen duen lurrean bertan ereinez dabilena. Horrela, gaur egun bide iraultzailean pentsatu eta ekiten duen oro jendartearren gehiengoarekiko abangoardia posizioan legoke. Hau da, ez dago abangoardia iraultzaile bakarra (gurea), baizik eta aurre hartze horretan saiakeran dauden eragile eta lerro ideologiko ezberdinak.

Hala ere, abangoardia posizioan egoteak iraultza berarentzako dakartzan arriskuen jabe izan behar gara, eta horiek ekiditeko bitartekoak jarri. Izan ere, ia saihestezina da abangoardiak erreferentzialtasuna eta boterea metatzea; horiek egoki kudeatzean dago koska, ez daitezen egolatria, tirania eta zekenkeria bihurtu. Bilakaera hori saihesteko, beharrezkoa da abangoardiak kritikatua izateko prest aurkeztea bere burua, eta denbora guztian kolektiboaren mesedetan lan egitea.

Gure azken helburua, betiere, klase desjabetu oro norabide iraultzailean arraun egitea litzateke, horren baitan organizatu eta ekitea. Abangoardia beraren patua, beraz, bere desagerpena litzateke, hots, herri borrokalari eta antolatuaren desegitea.

Gure ideiarekin jarraituz: hainbat dira abangoardia emakume eta genero disidentziaz osatuta egon behar dela adierazteko arrazoia:

Lehenik eta behin, emakumeok lideratutako prozesua bakarrik izan daiteke iraultzailea. Horrek ez du esan nahi gizonek antolakuntza espazio iraultzaileetan parte hartu ezin dezaketenik. Kontua da parte hartz horretan ohikoa duten lehen lerroan lekua utziz joan behar direla eta beraien abangoardia funtzioa despatriarkalizazio prozesura bideratu. Izan ere, jendarte patriarkaletako kide orok despatriarkalizazioaren beharra badugu ere, gizonezko bezala heziak eta irakurriak direnak dira botere sozial patriarkala metatzen dutenak, eta pribilegio posizio horretatik, lan gehien egin beharko luketenak mentalitate patriarkala eraisteko.

Horregatik hain zuzen ere, pentsatzen dugu gizonezkoen egiteko abangoardia posiziok, despatriarkalizazio prozesua aurrera eramatea dela. Horretan izango dira erreferente beste gizon batzuentzako, mentalitate patriarkalaren deseraikuntzako bidean. Era berean, “elkarbanatutako” abangoardia horretatik, emakumeon lidergotza sustatu beharko lukete, despatriarkalizazio prozesuaren parte moduan. Bestela, jendarte patriarkalak botere guzia esleituko dio gizonari eta emakumearen gainetik kokatuko du, nahiz eta biek lidergotza posizio berdinak borrokatzet duten. Boterearen ukapen ikusgarri eta esplizitua egon behar da.

Beste alde batetik, ahalduntze ariketa moduan identifikatzen dugu geure burua abangoardiaren arduran kokatzea; sexu-genero banaketa patriarkala bera deseraikitzeko ezinbesteko pausu gisara. Gure generoari esleitutako izaera subordinatuak iraultzarako ezinbestekoak diren gaitasun batzuetan herren utzi gaitu: ikuspegi estrategikoa, lidergotza gaitasuna, erreminta analitikoak, teorian sakontzeko ahalmena, oratoriarako eta debaterako trebezia... Gure buruak lidergotza posizioan jartzeak gaitasun guzti horiek garatzera eramango gaitu.

Horrekin lotuta, puntualizazio bat egin nahiko genuke; izan ere, egon badaude emakume eta genero disidente militante erreferente ugarien izenak historiako pasarteetan, baina asko eta asko genero auzian zentratuak, “eurenean espezializatuak”. Lehenik, ezin dugu patriarkatua “geure” kontu modura ulertu; ez da borroka sektoriala, errokoia baizik, eta beraz, edozein antolakunde iraultzailerentz lehen lerroan egon beharrekoa. Era berean, genero zapaldu izateak ez gaitu soilik genero auziaz teorizatu eta horren gaineko praktika politikoa diseinatzera eraman behar; iraultza egin nahi badugu, ezinbestekoa izango zaigu Dominazio Sistema ulertzeari, bere konplexutasun eta osotasunean.

Generoari esleitutako izaeraren haritik jarraituz, zentroan kokatu nahi ditugu emakumeari dagozkion ezaugarri sozial batzuk, eta horien potentzialitate iraultzailea azpimarratu. Orain arteko prozesu iraultzaileek ez dituzte indargunetzat aitortu ondoren azalduko ditugunak; gure esku dago, beraz, balio horiek antolakuntza militantean txertatzea, gure praktikaren erreferentzialtasun eta lidergotzaren bitartez.

Ezin dugu Bizitza Askerako bidea kontzebitu kideekiko enpatia eta zaintza zein emozioei beharrezko lekua utzi gabe, ezta ere bigarren lerroan, ezkutuan egiten diren bestelako lan guztiei. Horiek dira lan ikusgarria sostengatzen dutenak, eta azken finean garaipenari eutsiko dioten zutabeak. Indarrez hustu izan dira balio horiek, ahultasunari lotuak, iraultza prozesuarentzako kaltegarri gisa. Ziur gaude historiako borroka esperientzia desberdinatan kamaraden artean balio horiek egon direla; izan ere, horiei esker existitu ahal izan dira antolakundeak, iraultza prozesuak eta garaipenak. Baino uste dugu naturaltasunez eta inertziaz eman direla, ez ordea antolakunde iraultzaileek bere programan lehenetsi dituztelako. Ondorioz, ez zaio espazio bat eman formalki, modu antolatuan eta oinarri komunekin hori guztia lantzeari. Prozesu iraultzailearen ahulgunetzat hartzan dugu hori, aplikatu beharreko irakaspentzat; etika hori baita, askotan, garaipena eta porrotaren arteko aldea markatzen duena. Beti sumisotzat hartu diren ezaugarri horiek, botere moduan erabiltzeko unea da. Iluntasunean mantendu denari argi iraultzailea emateko garaia. Azkenik, justizia historikoaz ere ari gara emakume eta genero disidentziaren abangoardia aldarrikatzen dugunean; ukatu zaigun lekua hartzeaz. Ez dugu gomutan genero zapalduok gidatutako esperientzia iraultzaileen adibiderik eta potentzial handiko ekarpentzat hartzen dugu horiek deskubritu eta orainean berriro biziarraztea.

Hausnarketa hauen guztiengan ondorio gisa, Kimuako Marko Autonomo (MA) moduan aurkeztu nahi dugu geure burua. Ekimen irekiez eta argitaratzeko ditugun analisiez gain, gure ekarpen publikoetako bat izango da emakume iraultzaileen biografiak argitaratzea, beren izena eta izana oroitzu eta omentzeko, ahazten duguna soilik hiltzen baita.

Eta zuoi, kideok, antolatutako emakume eta genero disidenteak, ekin aurrera iraultzaren bidean, hartu zuen lekua.

Ez baitago iraultza posiblerik, gure abangoardiarik gabe.

*Kimuako Marko Autonomoa*

# Munstroak ala errotak ote, On Kixote?

**Abendua 8, 2022**

<https://kimua.eus/eu/artikuluak/munstroak-ala-errotak-ote-on-kixote>

Pasa den irailaren 13an Norvegiako Statkraft multinazionalak, Europako energia berriztagarri ekoizle nagusiak, jakitera eman zuen Gipuzkoan bi parke eoliko ezartzeko asmoa. Berriak eragindako sentsazionalismoaz harago, halako proiektuak hainbat galdera dakarzkigu; batzuk, erraz erantzutekoak, besteak, ez horrenbeste. Goazen, bada, auzia argitzen saiatzera.

Hasteko, askorentzako ezusteko albistea izan bazen ere, Statkraftena ez da egun EAEn mahai gainean dagoen parke eolikoen proposamen bakarra. Hark bultzatutako Itsaraz (Aramaio-Eskoriatza) eta Piaspekoez (Azpeitia-Errezil-Zestoa) gain (horien artean 85,5 MWko potentzia lortuko lukete), beste 12 parke eolikoren eraikuntza dago bidean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, beste 354 MW eskuratzeko. Eusko Jaurlaritzaren Energia Berriztagarrien Lurralte Plan Sektorialari begiratuz gero, ikusiko dugu asmoa dela 2030erako EAEn 733 MWko potentziarako instalazioa eraikitzea, lurreko energia eolikoaren bitartez. Zortzi urtetan, ekoizpen eolikoa ia bost aldiz haztea, alegia. Nafarroari dagokionez, beste 30 proiektu daude bidean (beste 980 MW), herrialde horretan jadanik dauzkagun 27 parke eolikoei gehituko litzaizkieenak. Iparralden, momentuz, ez dago horrelako projekturik aurrera eramateko asmorik. Hortaz, Euskal Herrian parke eoliko kopurua biderkatu nahi duen asmo estrategikoaz ari gara; momentuko gobernu autonomikoek zein Estatuak berak diotenetik haragoko indarra duen ekimenaz. Izan ere, mundu mailako kapitalaren birkonfigurazio ziklo baten hasieran gaude, eta horren baitan eguzki eta haize energiaren ekoizpen industrialak berebiziko garrantzia izango du. Funtsezkoa da halako ekimenak aztertzearako orduan atzean dagoen bultzada estrategikoa ulertzeari.

Bestetik, badirudi orokortua dela mota honetako azpiegitura energetikoei “berriztagarri”, “berde” edo “garbi” izenondoez laguntzea. Alabaina, haizea bera berriztagarria izateak ez du esan nahi hura aprobetxatzeko modu hori hala izan behar denik. Ez bederen, ikuspuntu energetikotik; izan ere, horiek bezalako haize erroten ekoizpen, garraio, instalazio eta mantenu prozesuan erregai fosilen erabilpen handia egiten da. Baino ezta ere erabiltzen diren materialen ikuspuntutik: ohikoa da lehengaiak periferia kolonialetik erauzitako meatzaritza industrialetik ekartzea, eta horien birziklapena askotan ez da bideragarria. Gainera, instalazioa egiten den lekuaren bertan ere, zenbait baliabideren ustiaketa ez berriztagarria egiten da: lur emankorren eta mendiko ekosistema batzuen suntsipena, nagusiki. Hortaz, jatorriz berriztagarria den energia iturri bati buruz ari gara, ekoizpen eredu ez berriztagarri baten bitartez ustiatu nahi dena.

Interesgarria den beste auzi bat Statkraft enpresaren izaera publikoa da, estatu norvegiarraren jabetzakoa baita. Datu hori ezker parlamentarioak (EH Bildu barne) berme bezala aurkeztu du, gure lurraldean antzeko ekimenak dituzten beste hainbat

enpresen izaera pribatuarekin kontrajarriz (Iberdrola, Capital Energy...). Gure ustez, halakoetan enpresaren izaera publiko formalari baino, berau kontrolatzen duen estatuaren izaerari erreparatza hobe. Kasu honetan, Norvegia estatu kapitalista garbia izaki, zein neurritan da desberdin, kapitalaren logikari dagokionez, enpresa pribatua eta publikoa? Statkraft enpresak, estatu burges baten jabetzakoa izanik, eta are gehiago, haren mugetatik kanpo diharduenez, esentzialki denaren arabera jardun beharko du: soldatapeko lan indarraren esplotazioaren bitartez funtzionatzen duen enpresa kapitalista. Jardun hori, gainera, gaindiezina zaion baldintza bati lotua joango da: bere kapitalaren errentagarritasuna. Ikuspegি sozialdemokrataren marketinaz jantzirik ere, herritarron erabakimen gaitasuna edota irabazien sozializazioa bezalakoak, ezinbestean, inbertsioaren errentagarritasunaren pentsura egongo dira beti. Gainditu ezin dezakeen kontraesana da hori. Beraz, txarra (estatu kapitalista baten jabetzako multinacionala) eta txarragoa (multinacional kapitalista) izan zitekeenaren arteko ezberdintasunei buruz eztabaidatzea baino, gure ustetan hemen gakoa publiko-pribatu banaketa problematizatzea da. Hots, funtsean logika kapitalista berari erantzuten dioten ekimenez ari garenean, ohikoa zaigun pribatu/publiko dikotomiari eusteak zentzurik ote du?

Eta honaino erraz erantzutekoak ziren galderak: haize errotok ez dira saltzen dizkigutenean berriztagarriak, eta sustatzaile bezala, mozorroak mozorro, enpresa kapitalista ororen helburua duen multinacionala ageri zaigu. Alegia, azken helburu ukaezin bezala bere kapitala errentagarri egitea duen enpresa. Hau guztia esanda, energiaren aferaren gaineko analisian sakondu ahala (energiak eskaintzen digun ongizatea, agortzen a bidean dauden erregai fosilekiko menpekotasuna, energia ekoizpen orok dituen ingurumen kalteak), ohartuko gara erantzuteko askoz ere zailagoak diren galderak agertuko zaizkigula. Esaterako, EAEn, kontsumitzen dugun energiaren %10 soilik ekoizten dugu<sup>1</sup>; Nafarroan, aldiiz, %19<sup>2</sup>. Zer egin dezakegu egoera honen aurrean? Gauza bat argia da: kontsumitzen dugunaren zati handi bat beste lurralte batetik importatzen dugun bitartean, energia ekoizpenaren albo-kalteak (guk geuk ukatzen ditugunak, gure mendietako haize-errotak kasu) beste horien gain erortzen dira. Hau da, kolonialismo energetikoa. Bestetik, guk geuk ekoiztutako ehuneko baxu horiek burujabetza energetiko (eta ondorioz, politiko eta ekonomiko) baxuaren isla dira. Gainera, importatzen dugun energia gehienaren jatorria fosila da; hau da, agortzen ari da, eta aldaketa klimatikoa ekidin nahi badugu, erabiltzeari utzi beharko genioke. Bidegurutze honetan, bi aukera baino ez ditugu: kontsumoa gutxitu ala ekoizpena handitu.

Lehen aukerari dagokionez, argi dago egoera asko hobetu litekeela, jendartea modu efizienteago batean berrantolatz, baina baita ere beharrezkoak ez diren hainbat gastu ezabatuz, batez ere klase sozial altuen gehiegizko kontsumoari dagozkionak. Klase sozial horiek nekez egingo diote uko beren pribilegioei, eta hor aurkituko ditugu lehenengo oztopoak. Gainera, energia gutxiago ekoizteko aukera bera kapitalismoari berezko zaion etengabeko hazkundearen logikari kontrajarria da, eta ondorioz, funtsean, onartezina zaio. Edozein modutara ere, pentsa dezagun, une batez bada ere, lortu dugula burgesiari dagokion kontsumoa ezabatu eta sistema sozial parekidea eraikitzea, energiaren ekoizpena eta kontsumoa zentzuz kudeatzen duena, eta ez duena behar materia eta energia gastuaren etengabeko hazkunderik. Nahiz eta halako lorpen iraultzailea gauzatu, zaila egiten zaigu pentsatzea posible denik gaur Euskal Herrian bizi garen 3 milioi pertsonentzako bizitza duina bermatzea, egun kontsumitzen dugunaren %10-19 hori soilik ekoitziz. Ez lego ke nahikoa janaririk denontzat, ezingo genituzke etxeak ongi berotu, oinarritzko zerbitzuak (garraioa, osasuna, hezkuntza...) desagertuko lirateke. Jendartearren suntsipena litzateke. Eta gure proposamena ez denez jendartearren

suntsipenean oinarritzen, ezta ere biztanleriaren zati handi bat desagertzeko beharrean, gai izan beharko ginateke energia gehiago ekoizteko<sup>3</sup>. Eta hemendik aurrerako galderak, gero eta labainkorragoak suertatzen zaizkigu.

Zenbat gehiago ekoitzu beharko genuke? Zein da energia kontsumo minimoa, biztanleria osoarentzat bizitza duinak eta kalitatezkoak eskain ditzakeena? Energia ekoizpen orok ingurumenaren gaineko eragina du: lurraldea okupatzea, materialen kontsumoa, hondakinak... Zenbaterainoko kaltea onartu beharko genuke? Bestetik, zein izan beharko lirateke energia iturriak? Erregai fosilak baztertu beharko genituzke, aldaketa klimatikoan duten eraginagatik, sortzen duten kutsaduragatik eta baliabide ez berriztagarri diren heinean, agortuz joango direlako. Nuklearrari dagokionez, fusio energia eta IV belaunaldiko fisio errektoreak ez dira, gaur gaurkoz, eta albiste sentsazionalista bezala duten presentziaz harago, energia iturri bideragarria, segura, ez-kutsakorra ezta berriztagarria. Hortaz, helburua litzateke energia iturri berriztagarrien (eguzki, haize, biomasa, hidroelektrikoa, geotermia) aprobetxamendua lortzea, ezinbesteko bi baldintza betez: aprobetxamendu hori zinez berriztagarri izatea eta izaera demokratiko eta herrikoia mantentzea (zentzu sozialista eta iraultzailean).

Behin hona helduta, galdetzea dagokigu ea zein eskalatan eta zenbateko teknifikazio mailarekin gauzatu beharko litzatekeen energiaren ekoizpenerako eredu hori. Eta baliteke honakoa galdera konplexuenetakoia izatea. Izan ere, eskalak eta teknifikazio mailak gora egin ahala, ingurumen eragina ere handiago izango da, baita ere energia kontsumitzen duten pertsonen alienazio maila (banaketa), ekoizpen prozesuarekiko. Era berean, ordea, produkzio eskala eta teknifikazio maila handiago horrek produktibitatea handituko luke, eta ondorioz, baita soberakinak izateko gaitasuna ere. Eta soberakinaren ondorioz da posible jendartearen konplexutasuna, lanaren banaketa soziala eta funtzio espezializatuen garapenerako aukera. Hau da, jendarte batean medikuak, artistak, irakasleak, zientifikoak edo ingeniarriak egoteko aukera, jendartearren zati batek gainontzekoen beharrizanak asetzeko haina soberakin sortzean datza. Horrela, gainontzeko horiek, oinarrizko beharrizanak asetuta dituztela, bestelako lanen garapenera dedikatu ahalko dute beraien bizitza.

Soberakina modu kolektiboan kudeatuko lukeen jendarteari buruz ari garela ulertuta, berau modu desorekatuan banatzea inposatzen duen klase sistemarik gabe, galdera ugari aurkezten zaizkigu. Halako eszenatokiak zenbaterainoko komplexutasun maila izan beharko luke, espezializazioari eta lanaren banaketa sozialari dagokionez? Zein puntura arte uste dugu beharrezkoa dela soberakina ekoiztea, herritarren zati bat espezializatua izan dadin? Zein eskala arte handitu dezakegu energiaren ekoizpen prozesua, jasangarria eta demokratikoa izateari utzi gabe? Produkzio sistema alienatzaile bilakatu gabe? Nola ebatzi eskala-teknifikazioa-produktibitatea-ingurugiro eragina-autonomia faktoreen arteko tentsioa? Edo posible ote da soberakinak ekoizteko gai den eredu energetiko desentralizatua? Eta behin hona helduta, posible al da soberakin ugari sortzen dituen ekoizpen sistema, eskala edozein delarik ere, erregai fosilik gabe? Garatu ditzakegun energia iturrien artean, zein da bakoitzaren Itzulera Energetikoaren Tasa?

Energiaren auziaz eztabaidatzen dugunean, erantzun gabeko eta kontraesanez betetako galdera hauek guztiak ditugu parez pare. Statkraft eta bere parke eolikoen proposamenera itzulita ere, kontraesan berberak topatuko ditugu. Euskal Herrian sarri entzun dugun leloa da *Ez hemen, ez inon*, makroproyektu ugariren kontra erabili dena: nuklearrak, AHT, frackinga, Zubietako erraustegia, Aroztegia, eukaliptoak... Horien

kontrako mugimenduek (edo behintzat, horien zati handi batek) osotasunean egiten zioten uko proiektu bakoitzari, bere barne logikari. Inork ez zuen aldarrakatzen “Fracking bai, baina ez horrela” edo “gure bailaran eukaliptorik ez”. Ez behintzat, gure interesekoa den inork. Kasu honetan, ordea, konplexuagoa da osotasuna ukatzea, horren adibide, orokortzen ari diren lelo berriak: “Berriztagarriak bai, baina ez horrela” edo “Eolikoak mendietan Ez”. Horietatik ondoriozta dezakegu, beste modu batera edo beste nonbait, baina eolikoak egon, egon behar direla.

Gure aburuz, identifikatutako kontraesanak gainditu artean ezingo dugu sakon eta osotasunean energiaren, eta bereziki berriztagarrien, auzia ebatzi. Ez da egun batetik bestera argituko dugun afera, ez eta guri bakarrik dagokigun ardura ere. Horregatik goian aurkeztutako galderen inguruau sakontzeko interesa duen orori eztabaidarako eta gaia lantzeko gonbita luzatzen diogu.

Hala eta guztiz ere, lurrik gure azpian gira eta bira jarraituko du, eta horrek, mundu honetan gauza bakarra esan nahi du: Statkraftena bezalako proiektu gero eta gehiago aurkeztuko dizkigute. Bai eta inposatzen saiatu ere. Horregatik, dena delako eztabaidei bidea zabaltzearekin batera, berehalako egoera horiei aurre egiteko gai izan behar dugu, erantzun eraginkorrik eskainiz, eta era berean baldintzak jarriz norabide iraultzailean aurrera egiteko. Zentzu horretan, eta gaurko hausnarketarekin amaitzeko, hau bezalako egitasmoen aurrean berehalako erantzun horiek egikaritzeko balio dezaketen gako batzuk aurkeztu nahi ditugu:

- Planifikazioa eta logika kapitalista. Halako azpiegiturek aurretiazko planifikazio bat erantzun beharko liokete, eta ez momentuko interes espekulativoari. Esate baterako, EAEko egungo Energia Berriztagarrien Lurrarde Plan Sektoriala oraindik bukatu gabe dago, baina dagoeneko hasiak dira parke eoliko eta eguzki-parke ugari eraikitzeko trimitazioekin. Zentzu horretan, ez dugu ahaztu behar Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen egungo lurrarde plangintzarako ereduak (Energia Berriztagarriena barne) arrazionaltasun kapitalistari erantzuten diola erabat, helburu izanik kapitalismoak gure lurraldean egoki eta arazorik gabe aurrera egitea. Beste behin ere: publikoa izanagatik ekimen batek ez dio kapitalista izateari uzten. Horren aurrean, lurrarde plangintzaren eredu hori izan behar da gure gudu-zelai nagusietako bat eta bere kontra jo irmotasun osoz. Ahaztu gabe, noski, eta beraz horretan ere indarrak jarriz, maila propositibora salto egiterakoan, goian ebatzi gabe geratu diren oinarrizko kontraesanekin topo egingo dugula: nolakoa izan behar da lurrarde plangintza sozialista eta iraultzailea, izaera errealki jasangarri eta demokratikoa edukiko duena? Nolakoa, herritar guztientzako bizi baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatuko dituena?
- Berriztagarriak ez diren baliabideak eta ekosistema ahul eta urriak mantentzea. Baliabide horien kontrako kalte atzeraezinak ekidin, batez ere lur emankorrik eta sistema hidrologikoak suntsitzerako orduan. Baita ere interes bereziko ekosistemen gaineko kalteak, bereziki 92/43/EEE Habitat Zuzentarauan ageri direnak.
- Beto eskubidea eta herritarren parte hartzea. Herri bakoitzak bere mugen barruan txertatuta dauden proiektuekiko beto eskubidea izan beharko luke; eta hura, herri galdeketa lotesle bidez ebatziko litzateke.
- Irabazien sozializazioa. Kapitalaren gaineko jabetza pribatu orok zilegitasunik ez duela ulertzen dugun heinean, hau bezalako proiektuek eragindako gainbalio guztia langileon

eta eraginpeko lurrardeetako herritarren artean banatu beharko litzateke. Hori izan behar da auziaren gaineko negoziaketa ororen abiapuntua.

1. Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurraldearen Plan Sektoriala. Eusko Jaurlaritza, 2021. <https://www.euskadi.eus/euskadiko-energia-berriztagarrien-lurralde-plan-sektoriala-egiteko-prozesua/web01-a2energi/eu/> ↵
2. Nafarroako Energia Balantzea 2020. Nafarroako Gobernua. <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/58064B90-D979-4F3A-9E2B-1ABE4201E0CD/477025/BalancesenergeticosdeNavarra2020.pdf> ↵
3. Beste aukera bat litzateke borondatzeko aliantza internazionalista saretzea, eta sare horretan, energia ekoizpena beste herrialde batzuetan gauzatzea. Bainazaila dirudi irudikatzea beste herrialde batzuek onartuko lituzketela guk nahi ez ditugun ondorio kaltegarriak. Ez gara orain gai horretan sartuko. ↵

# **Herri Mugimendua Euskal Herrian. Iragana, oraina eta etorkizuna**

**Urtarrila 15, 2023**

[https://kimua.eus/eu/artikuluak/herri-mugimendua-euskal-herrian-iragana-oraina-eta-  
etorkizuna](https://kimua.eus/eu/artikuluak/herri-mugimendua-euskal-herrian-iragana-oraina-eta-etorkizuna)

Zaila suerta daiteke gaur egungo Euskal Herria zer den ulertzea azken 50 urteetan gure herri eta auzoetan emankor loratu izan diren herri borroka eta erresistentzia ugariak kontuan hartu gabe. Mugimendu antinuklearra eta intsumisioa; errepresioaren aurkako eta preso politikoaren aldeko borroka; AHTaren, Leizarango autobidearenaren edota Itoizko presaren kontrakoa; ehunka herri eta auzotako gazte asanblada eta beste hainbeste gaztetxe zein gune okupatu autogestionatu; autoantolakuntza eta autodefentsa feministaren alde borrokatu diren emakume talde eta asanbladak; euskararen defentsarako borrokak, Korrika bera edota frankismoaren bukaerako ikastolak; mendi, dantza edo herri-kirol taldeak; auzokide elkartea eta langabean asanbladak; pentsiodunen mugimendua... Tankera desberdinako eta aniztasun handiko borroka multzoa, denak ala denak auzoen, herrien eta eskualdeen errealtitate lokalari atxikiak. Gutako gehienek, intuitiboki bada ere, “Herri Mugimendua” (HM) kategoriaren barruan kokatzen ditugunak. Horrenbestekoa izan da Herri Mugimendu horren garrantzia Euskal Herrian non, azken hamarkadetan zehar, gure lurraldean aurrera eraman izan den ia edozein borrokak HMan izan du jatorria edo honek zeharkatua izan da noizbait. Honenbestez, HMaz hitz egiteak Euskal Herrian autoantolakuntzarako eta sistemaren aurkako borrokarako iruditegira garamatza ezinbestean.

Zentzu horretan, Herri Mugimendua izan da Euskal Herrian errrotu diren tradizio ezberdineko borroka gehienetan bilgune bakarrenetako bat. Hau horrela, batek baino gehiagok harriduraz har lezake azken hilabeteotan Herri Mugimenduaren inguruan egondako eztabaidea, are gehiago bere iraganeko zein oraineko existentzia bera kolokan jartzea. Zalantzak ez dago halakoek geroz eta leku handiagoa hartu izan dutela euskal eszenatoki politikoan. Gure ustetan, Euskal Herriko ziklo politiko berria berkonfiguratzeko ari den garaiotan, ez gintuzke ezustean harrapatu beharko aurreko zikloa oinarritu zuten zutabeak eztabaideagai jartzeak eta irakurketa berriak sortzen joateak. Kimuatik analisi kritiko baten beharrarekin bat gatoz eta Herri Mugimendua ezin liteke azterketa horretatik kanpo geratu. Are gehiago, gure proposamen politikoaren oinarri garrantzitsuak diren HM edo Herri Boterea bezalako kategoriez ari bagara. Horixe da, beraz, testu honen funtsa: HMa iraganean izandakoaren analisia kritikoa egitea, gaur egunean bizi duen egoeraz hausnartzea eta espazio politiko bezala gako iraultzailetan berreraikitzea posible egin dezakeen eztabaidea-proposamena aurkeztea.

Hau guztia erdiesteko, ordea, Herri Mugimendutzat ulertzen duguna argitzea beharrezkoa da lehendabizi. Eta ez da, ez, ariketa erraza, kontrakoa dirudien arren. Izan ere, HMa Euskal Herrian izan denaren iruditegi orokorraz gain, zintzoak izanik,

kontzeptu gisa nahiko lausoa da eta ez da definitzen erraza. Duen izaera eklektiko eta heterogeneoak, arras gorabeheratsua eta koiuntura zehatzen menpekoia izanik, ezartzeko zailak diren mugak esleitzen dizkio. Zer da, beraz, eskuarki Herri Mugimendu gisa ezagutzen dugun hori?

### *1. Masa borroka eta Euskal Nazio Askapen Mugimendua*

Modernitate kapitalistak etengabeko egiturazko biolentziaren beharra du. Horrela bakarrik berma dezake jendartearen gehiengo baten gorputzak, lana eta oro har bizitzaren osotasuna, gutxiengo bati azpiratua geratzea, gutxiengo horrek geroz eta botere handiagoa metatzen duelarik. Egiturazko biolentzia horrek klase tentsio bat eragiten du halabeharrez, berau pairatzen duten horien erreakzio espontaneoa eragiten duena. Erreakzio primario horrek, testuinguru politiko-ideologiko, ekonomiko eta sozialaren arabera, norabide ugari har ditzake: faxismo erreakzionariotik hasita, altxamendu armatu iraultzailera. Bada, Euskal Herrian Herri Mugimendu bezala ezagutzen dugun hori, jendartearen erreakzio horrek gure historiaren testuinguru oso jakin batean hartu zuen formaren emaitza da. 1960. hamarkadatik aurrera eman zen testuinguruaz ari gara, zapalkuntza nazionala eta lana-kapitala kontraesana modu gero eta leherkorragoan adieraztea eragingo zuena. Zenbaitetan matxinada armatutik ere hurbil egongo zena.

Testuinguru horretan, egiturazko klase tentsioen aurrean berezkoa litzatekeena baino herri-erreakzio eta antolakuntza maila altuagoa eman izan zen urteetan zehar Euskal Herrian. Herri Mugimendua, nolabait, jendartearen erreakzio primario horren adierazpen garatu bezala uler genezake. Nagusiki izaera espontaneoa, sektoriala, desentralizatua eta auto-antolatua zuen potentzia sozialaz ari gara: eskala lokalean, auzo eta herriean, jendartea bere burua antolatzeko eta problematika zehatzen aurrean programa propioa garatzeko erakusten zuen gaitasun hori litzateke Herri Mugimendua. Esan bezala, gatazka sozial handiko garai historikoaz ari gara (adierazpen armatua ere bazuena), eta hor ezin alde batera utzi Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM). Hain zuzen ere, ENAM izan baitzen garaiko esparru iraultzailearen barruan zegoen antolakuntza adierazpen garrantzitsuena, momentu historiko hura katalizatu eta zentzu askotan gidatzeko gai izan zena. Hori dela eta, gaur egun Herri Mugimendu bezala ezagutzen den horren esanahia ezin da ENAMaren existentzia eta izan zuen garapenetik banandu. Zentzu horretan, ezin uka HMa ENAMek osatzen zuen espacio organizatibo-estrategikoaren inguruan kanalizatua izateko joera etengabe eman izan zela. Bideratze hura, ordea, ez zen homogeneoa eta tentsioak ere eragiten zituen. Zenbaitetan kontzienteki suertatzen zen, beste hainbatetan inertziaz; batzuetan modu baketsuan, beste batzuetan entrismo operazioen bitartez, zeinetan HMaren expresio zehatzetan esku hartzen zuen ENAMek, bere interes propioen alde norabidetzeko. Horregatik guztiagatik, HMaren behar bezalako analisia egiteko, laburki bada ere, nahitaezkoa da ENAMaren logika estrategiko eta antolakuntza markoaren baitan HMaren lekua zein izan zen argitzea.

Zentzu horretan atera dezakegun ondorioetako bat da, berez, HMa ez zela subjektu politiko moduan existitzen: antolakuntza expresio lokal eta sektorial horiek guztiak ez zeuden beraien artean artikulatuak, ez zuten bideorri propioa ezarriko zuen programa amankomunik. Eragile iraultzaile bezala jarduteko beharrezkoak ziren antolakuntza erremintak ere ez zituen. Izan ere, ENAMekin erlazioan betetzen zuen paperaz harago, HMa ez zen “mugimendu” bat. Aldi berean, bere potentzial iraultzailea ENAMek

eskaintzen zion noranzkoaren araberakoa zen, azken honen erabaki organoek, izaera estrategiko-iraultzaile hori bazutenek, ezartzen zutenaren araberakoa, hain zuzen ere. Organook eta HM osatzen zuten antolakuntza eta borroka espresio ezberdinek ez zuten lotura formalik: hots, ENAMen antolakuntza eskemaren barruan, erdigune eta motore estrategikoa HMtik kanpo (edo gainetik) geratzen zen. Hasieran zerrendatu ditugun borroka adierazpenenetatik, gutxi batzuek izan zuten ordezkaritza formal eta zuzenik ENAMeko marko erabakitzale horietan.

Antolakuntza eskema honek, tradizio marxista-leninistak berezkoa duen masa-alderdia logikari erantzuten zion. Horren arabera, bere buruari izaera estrategikoa aitortzen dion antolakuntza espazioak masak hartu beharreko norabidea zehazten du, abangoardia iraultzailerako jardun horretan masarengandik nolabait bananduta dagoen bitartean. Modu horretan, masa mugimendua antolakunde iraultzailearenengandik (Alderdia) organikoki bereizia geratzen da. Banaketa horretan, baina, antolakunde horrek masen gaineko erabakimena du, berauek norabide iraultzailean gidatzen baititu, “masa fronteak” deritzenen bitartez. Euskal Herrian eskema hau KAS Alternatibaren bitartez finkatuz joan zen, gurean Alderdi bakarra beharrean, Buruzagitzza Blokearen gidaritzapean garatu bazen ere, non antolakunde eta ikuspuntu iraultzaile ezberdinek bat egiten zuten. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, espazio estrategiko hau ETA militarraren eraginpean geratuz joan zen, gero eta intentsitate handiagoarekin. Edozelan ere, HMak ez zion espazio estrategikoarenkiko kanpoko geruza izateari utzi: hainbat borroka lokal eta sektoriaLEN multzoa, abangoardia iraultzailearen gidaritzapean.

Honek guztiak ez du esan nahi HMak garrantzirik ez zuenik ENAMentzat. Aitzitik, HMa berebiziko garrantzia zuen espazioa zen: besteak beste, atzeguardiako funtzioa betetzen zuen, babes sozial eta herri-sostengurako, zein militante berriak batzeko eremu bezala. Era berean, Estatuaren aurkako borrokan, gatazka sozialaren intentsitatea areagotzeko nahiz lausotzeko ere balio zuen. Baliteke hor egotea arazoaren erro nagusietako bat: ENAMek HMaren beharra zuela, baina HM hori ez zegoela antolakuntza eskeman benetan txertatua, eta ondorioz, erabaki-hartzean ere ez.

Halaber, honek ez du esan nahi HMa erabat kontrolatzen zuenik ENAMak. Ez eta bere baitan ENAMekiko independenteak ziren indarrak existitzen ez zirenik, izaera iraultzailea eta beraien bide-orri propioa zutenak. Batzuek antolakuntza eskema antzekoak zituzten orobat, inspirazio marxista-leninistatik eratorritako masa-alderdia proposamenetan oinarrituak, baina nazio askapenerako markotik at kokatzen zirenak. Beste batzuek, aldiz, potentzial iraultzaile eta estrategikoa masan bertan sortu eta artikulatu beharko litzatekeelako proposamena defenditzen zuten, ez ordea honen kanpotik. Eta horrekin, bertikalismoan, hierarkizazioan eta autoritarismoan oinarritutako planteamenduak arbuiatzen zituzten. Azken hauen artean, aurreko ziklo politikoan zehar Autonomiak hartu izan zituen espresio ezberdinak azpimarratu nahi ditugu: 70. hamarkadako fabriketako asanbladetan; 80.ean Komando Autonomoak; lurraldearen defentsarako borroketan izandako garrantzia (Leizaran, Itoiz, AHT), baita Gaztetxeetan zein autogestio-okupazio mugimenduan 90.ean; mugimendu feministaren hastapenetatik gaur egunera arte izandakoa... Borroka eta antolakuntza ulertzeko modu bat, Euskal Herrian influentzia politiko nabarmena izan zuena, eta zeinaren oinordeko sentitzen garen. Edonola ere, arrazoi ezberdinak direla medio, ez zuen jakin edo ez zuen nahi izan ENAMari hegemonia lehiatzeko gaitasun politiko eta organizatibo nahikorik metatzen.

Horregatik guztiagatik, egun Herri Mugimendu bezala ezagutzen dugun hori ENAMen garapenari eta hazkundeari hertsiki lotua egon zela deritzogu. Bere argi-itzaletik, herri-edo “masa”-izaerako borroka eta eragile multzoa izan zen, modu kontziente edo inkontzienteagoan, ENAMen orbitan eta berak zerabilen norabide estrategikoan jarduten zuena. Ez zen inoiz antolakuntza-gaitasun eta programa estrategiko propiodun subjektu politiko gisa artikulatzera heldu, horretarako potentzialitatea izan bazuen ere. Hau esanda, Herri Mugimendu horrekin zer gertatu den galdetzea dagokigu, batik bat ETaren desagerpena eta ENAM osatzen zuten antolakuntza eta egitura politikoen desintegrazioa eta gero.

## *2. Herri Mugimenduaren diagnostikoa gaur egunean*

Argi dago gaur egun, Herri Mugimenduari dagokionez, krisi eta desmobilizazio sentimendu orokortu batek zeharkatzen duela. Hala ere, ikusitakoak ikusita, ez da harritzeko: behin ENAM desagertuta, HMak bere orbitan betetzen zuen papera bete ezinik, ezinezko du orain arte bezala existitzen jarraitzea. Hau da, aurreko ziklo politikoan subjektu politiko izatea lortu ez bazuen, zentzuzkoa da lekuz kanpo geratzea behin ziklo hori agortuta: berau osatzen duten indarrek desagertu ala berkonfiguratzea, beste aukerarik ez dute. Gainera, estrategikoki eta nazionalki antolaturiko indar bezala existitu ez izanak, are nekezagoa egiten du errealtitate politiko berrian berrantolatzea. Hitz gutxitan, hauxe da gure ustetan HMarekin gertatzen ari dena; hemendik aurrera, ondorio ezberdinak atera ditzakegu.

Alde batetik, Herri Mugimendua gaur egunean ez da “mugimendu” bat. Lehen aipatu bezala, iraganean, Euskal Herrian klase eta nazio askapenerako borrokak erdiesten zuen intentsitatea maila lokalean islatzen zen gure inguruko auzo, herri eta eskualdeetan. Intentsitate horrek, era ez-zuzenean bazen ere, izaera nolabait espontaneoa zuten herri-borroka ugari aktibatzea lortzen zuen. Alegia, testuaren hasieran Herri Mugimendua definitzeko generabilen “klase tentsioaren erreakzio primario horren adierazpen garatua” izatea ahalbidetzen zuen. Gaur egun, ordea, ETaren desagerpena eta ENAM izan zena desegin ostean, konfliktibitate soziala nabarmen murriztu da Euskal Herrian, eta “adierazpen garatu” horrek behera egin du modu esanguratsuan. Honek ez du esan nahi gaztetxe eta gazte asanbladak existitzen ez direnik; edota talde feministak eta lurralen defentsarako borrokak; edo momentu eta koiunturaren araberako herri-antolakuntza eta borroka desberdinak. Are gehiago, badira azken urteotan sortu eta aurrera eraman diren etxebizitzak sindikatuak, pertsona migratuen harrera sareak, langile gredak, pensionistak edo pandemiari erantzuteko mobilizazioak, esate baterako... Klase tentsioak egungo jendartea zeharkatzen jarraitzen du modu berdintsu, eta forma ezberdinak hartuz doan erantzun espontaneo eta auto-antolatuak eragiten jarraituko du. Etorkizunean ere horrela izango da zapalkuntza eta esplotazio ardatzak berean dirauten bitartean. Aurreko guztia egia izanik, kontua da, alde batetik, erantzun hori jada ez dela iraganeko indarrez azaleratzen. Eta bestetik, auto-antolakuntza eta herri-borroka espresio hauek guztiak, espontaneoak zein ez, ez daudela beraien artean artikulatuak, ez dute antolakuntza lotura formalik, ezta proposamen politiko eta estrategiko bateraturik. Ez dihardute “mugimendu” gisa, ez bere horretan (inoiz izan ez dena), ezta jada existitzen ez den ENAMarekiko harremanean. Horregatik, ez litzateke zintzoa izango “mugimendu” bezala izendatzea. Gure ustetan, zuzenagoa litzateke elkarren artean artikulatu gabeko herri-antolakuntza espresio multzoaz hitz egitea.

Bestalde, antolakuntza adierazpen hauen gehiengoak ez du eskala lokala gainditzen, eta gainditzekotan, lan-marko sektoriala igarotzeko zaitasunak ditu: etxebizitza, ekologia, elikadura, feminismoa, gazte eta kultura arloa... Era berean, nabariak dira horietako gehienek jendartearen geruza prekarizatuenekin konektatzeko dituzten zaitasunak, eta bereziki sektore arrazializatuekin. Azken urteotan salbuespen azpimarragarriak agertuz joan badira ere (ikus etxebizitza sindikatu, autodefentsa antiarrazistarako kolektiboak edo pertsona migratuei zuzendutako harrera sareak), HMak, orokorrean, oso profil zehatz bat erantzun dio urteetan zehar: pertsona zuri eta euskaldunak. Eta 90. hamarkadatik aurrera, langile mugimenduaren beherakada orokorrarekin, eskuarki klase ertainekoak.

Horrek guztiak, erruz zaitzen du, plano programatikoan sikiera, jendartea bere osotasunean eraldatzeko aspirazioa duen erantzun baten artikulazioa. Auzo, herri eta zenbait estratu sozialen errealtitate lokalean errotze sakona errazten duen arren, lokalismo eta perspektiba sektorial horrek zaildu egiten du egungo “status quo”-a gainditu dezakeen sakontasun estrategiko nahikoa eskuratzea. Partzialitate posizio honetatik, zenbait zapalkuntza eta biolentzia adierazpen teloiaren atzean geratzeko aukeraz gain, Sistemaren osotasuna, agertzen denean, erdietsi ezineko afera gisa aurkezten da. Eta ondorioz, dituzten gaitasunekin abordatu ezinekoa. Modu horretan, erantzun logikoa da diharduten jendartearen txoko txiki horretara erretiratzea. Baldintza horietan, borroka esperientzia hauek posible denaren mugen barnean jardutera kondenatuak daude etengabe; muga horien barruan “errerealista” denaren morroi. Hots, funtsean, erreformista den izaera errepruduzitzen, asistentzialismotik edo mugimendu-espektakuluaren performancetik harago joateko zaitasunak izango dituena. Berez, ez da borroka eta antolakuntza adierazpen hauek borondatez uko egiten diotela sistema modu integralean aldatzeari. Besterik gabe, egun konfiguratuta dauden gisan ezinezko zaie neurri honetako helburua betetzeko beharrezkoa den antolakuntza eta gaitasun politikoen garapena. Area gehiago, gaur egungo konfigurazioa gainditu gabe borroka iraultzaile eraginkor bat aurrera eramatzen tematzen direnak, boluntarismoa, eraginkortasunik eza eta inpotentzia zurrubilo batean harrapatuak geratzera kondenatuak daude.

Azkenekoz, esandako guztiak, maila nazionaleko eta proposamen estrategiko propiodunen jabe diren subjektuek diotenarekiko erabat baldintzatua egotea dakar. Errealitate politikoaren ulerkerarako erreferentzia markoak, gatazka sozialen aurrean balizko erantzunak oinarrituko dituen zentzu komunak, izaera estrategikoa duten antolakunde nazional horiek ezartzen dutenaren menpean eraikiko dira. Gaur gaurkoz, nagusiki, Sortu-EH Bildurenean eta Mugimendu Sozialistarenean, eta neurri txikiagoan Jarkirenean. Hau da, masa-alderdia logikapean beste behin, “masekin” lotura organikorik gabeko antolakuntza egituretatik masaren gaineko erabaki eta norabidetze saiakerak. Iraganean gertatzen zenarekiko aldaera nabarmen batekin, gainera: Jarkik izan ezik, ez Sortuk ezta Mugimendu Sozialistak ere, ez du ematen Herri Mugimenduaren figurarik beraien planen barruan daramatenik. Honekin guziarekin, eta laburbilduz, Euskal Herriko HMaren egungo gure irakurketa hurrengokoa da: eskuarki Herri Mugimendu bezala ezagutzen genuen hura ez da existitzen gaur egun Euskal Herrian. Ez da mugimendu bezala existitzen eta berau osatzen duten antolakuntza espresioek, egun dituzten gaitasun organizatibo, estrategiko eta politikoak aintzat harturik, erreformaren eta asistentzialismoaren mugen baitan jardutera kondenatuak daude.

Ez dadila esandakoa gaizki ulertu. Honekin guztiarekin ez gabiltza espazio politiko horren existentzia arbuiatzen, ezta herri-adierazpen organizatibo horiek egiten duten lana aurkaratzen ere. Guk geuk horietako askotan parte hartu izan dugu: AHT-aren aurkako borroka, gaztetxe eta okupazio mugimendua, mugimendu feminista, etxebizitzaren aldeko borroka, elikadura burujabetasuna, pertsona migratuen harrera sare... Eta egun ere horietan dihardugu. Hauen izaera lokal eta sektorialak, gehienetan txikian zentratua, egunerokoan eta politika nazionalaren errealitatearen fokuetatik urrun, jendartearren zati handi baten kontraesan errealekin kontaktuan sartzea dakar. Eta hortik, dominaziotik askatzeko etengabeko borrokan dabilen jendartearren pultsioarekin bat egitera. Gaur egun izaera erreformista eta asistentzialista duten arren, edo horregatik hain zuen ere, modernitate kapitalistak inposatzen duen herri-mesen gaineko klase tentsioak eragindako sentipen espontaneoaren adierazpen garbia ere bada. Beraz, ez dezagun umea ur zikinarekin batera bota. Herri-adierazpen organizatibo hauek aurrera daramaten jardueren zati handi bat, haratago amesteko ezinbesteko baldintza da. Baino hortxe dago gakoa, horrekin amestu egin beharra dagoela. Espazio hauetako militante aktibo gisa, hauen kontraesanak eta mugak mahaigaineratzen saiatzen gara, besterik ez. Egun darabilten konfigurazioarekin urrutia gora heltzea posible ez dela azpimarratzen. Eraldaketa iraultzilerako gaitasun propiorik ez dutela nabamentzen.

Bide beretik, honekin guztiarekin ez dugu aditzera eman nahi muga hauek guztiekin berezko izaera dutenik, zurrunk direnik, eta beraz, gainditu ezin direnik. Hau da, herri-masak bere horretan erreformistak direnik eta gidatuak izan behar direnik, haiengandik banatutako abangoardiaren beharra dutenik. Mugimendu politiko erreal batean bilakatu ezin daitekeenik, izaera iraultzailea duen borroka estrategia propioa artikulatu ezin duenik. Alderantziz, hori da justuki proposatzen gabiltzana. Eta horrexegatik, inoiz forma berri bat hartu ahalko badu, “Herri Mugimendu” hori aurreko ziklo politikoan izan zena gainditzeko prest agertu beharko da.

### *3. Eztabaida prozesurako eta bat-egite estrategikorako proposamena. Herri Egiturak eta Herri Mugimendu Iraultzailea*

Behin honaino helduta, funtseko galdera honakoa litzateke: posible al da egun desartikulatua eta agentzia politikorik gabe dagoen espazio politiko hori subjektu estrategiko iraultzaile bilakatzea? Eta posible da hori gaitasun politikoaren barne garapen baten emaitza bezala gertatzea? Erantzun zaileko galdera, zalantzarik gabe. Hasteko, garapen horren izaera endogenoak, nolabait, masa-alderdiaren logika ezeztatzea dakarrelako. Hau da, ez luke onartuko masetatik organikoki bereizitako talde baten existentzia, masa horiek gidatzeko eta norabidetzeko lerro estrategikoak ezarriko dituena. Era berean, gure ustetan gakoa hemen ez litzateke Alderdiari edo “antolakunde estrategikoari” esleitzen zaizkion erreminta eta gaitasunei uko egitea, baizik eta funtzio eta gaitasun horiek herri-mesen barnean sortu eta bertan mantentzea. Ez, beraz, horietatik kanpo, horiei fusionatuta baizik. Honekin, herri-masa horiek erabakitzte estrategikorako espazio komunak izan ditzaten aldarrikatzen gabiltza; beraien partaideen formakuntza integralean sakontzea ahalbidetuko duten egiturak; antolakuntza eta borroka prozesuan buru-belarri murgiltzeko prest egongo den militanteen masa kritikoa... Eta hau guztia eskala nazionalean, bizitzaren esparru oro barnebilduz eta zentzu iraultzailean aurrera eginez.

Hau guztia posible al da? Kimuatik baietz deritzogu eta hori da gure proposamenaren funtsa. Aukera horri uko egiteak herri-espresio horiek kondenatzea suposatuko luke:

erreformaren mugen baitan jardutera alde batetik, edo beste behin ere bere muga formaletatik kanpo erabakitzent denaren morroi izaten jarraitzena. Argi dago, hala ere, hau ez dela prozesu xamurra izango. Kontrara, gaitasun iraultzailea herri-masen baitan sortu eta mantentzea askoz ere konplexuagoa da masa-alderdiaren logika erreproduzitza baino. Beste arrazoi abarren artean, orain arte Euskal Herrian klase borroka artikulatzeko erabili gabeko formula baita hau. Ez behintzat nahikoa indarrez, ezta Herri Mugimendua eta ENAM existitzen zirenean ere. Hau da, gurean ez da norabide horretan erroturiko jakintza eta tradizio politiko nahikoa indartsurik izan. Zentzu horretan, ez gabiltza izaera nazional-estategikoa duten antolakundeen arteko konfluentzia prozesuaz, eta horrek berezko erritmo mantsoa esleituko dio. Alegia, Euskal Herriko eszenatoki makropolitikoaren abiadurarekin bat etorriko ez dena, zeinetan erabakitzeta eta gaitasun estrategiko handiko antolakundeek diharduten. Beraz, horrelako prozesu baten arrakasta ziurtatzeko konplizitate ezberdinak eraikiz joan behar da, herri antolakuntza espresioen arteko lotura ideologiko eta organizatiboak estutuz. Guzti hori, gehienetan diagnostikoa bera ere konpartitzen ez duten eragileen artean, edota gaur egun oraindik existitzen ez direnekin, etorkizunean agertuz joango baitira. Hortaz, gaur gaurkoz existitzen ez den diagnostiko bateratuaz gain, metodo bat ere beharrezkoa da, baita bide-orri konpartitua ere. Horretan datza prozesuaren konplexutasuna.

Hau esanda, eta dakarren zailtasunagatik hain zuzen ere, uste dugu ez dela modu espontaneoan gertatuko den prozesua izango. Katalizatzaile lanak egingo dituen bultzada eta indar militante baten beharra izango du. Horretara dator Kimuaren proposamen hau, eta orokorrean, HMaren berreraikuntza prozesu hori gako iraultzailetan bultzatuko duten antolakuntza espazio estrategikoen beharra. Hemen, halere, ezinbestean azpimarratu behar dugu ez dugula “katalizatza” “gidatzearekin” nahastu behar. Ez gaitezen bultzatzearen eta kontrolpean hartzearen artean nahastu. Kimuak ez du nahi prozesu hori gidatu, eta nahiko balu ere ezingo luke. Beste hainbat arrazoiren artean, Kimuako kideak herri espresio horien zati txiki bat baino ez garelako eta ez baitugu hauetako bat ere ordezkatzen (Kimua bera ez ezik). Beraz, ezinezkoa zaigu hauetan guztietan ageri diren sentsibilitateak jaso ezta ordezkatzea ere. Hori dela eta, gure helburua ez da berreraikuntza prozesua hemen ezartzen dugunaren arabera garatzea; geroz eta indar gehiagoz aurrera egin dezan baizik. Hori horrela, arestian garatu dugun diagnostikoa eta jarraian aurkeztuko ditugun metodoaren eta bide-orriaren inguruko gakoak, eztabaiderako eta debaterako elementu bezala ulertu behar dira. Eta hortaz, ahalik eta arinen gaindituak izateko xedearekin mahaigaineratzen ditugunak, prozesua martxan dagoela adieraziko bailuke horrek.

### **3.1. Eztabaiderako ardatzak**

Modu honetara, lehenengo eta behin, ikuspegি bateratu bat eraikitza ahalbidetuko digun eztabaidera prozesua bultzatzea beharrezko ikusten dugu. Beldurak eta kezkak argitzeko, zein konplizitateak ehuntzeko; proposamen ezberdinak mahaigaineratu eta kontraesanen daudenean, eztabaideratu eta sintesi berriak eraikitzeo. Azken finean, momentu jakin batean oinarrizko konfluentzia estrategikoa erdiesteko baldintzak sortzen joatea. Esan gabe doa, egungo baldintzak kontuan izanda, erabili beharreko metodoa, hasieran behintzat, ez dela konplexuegia izan beharko. Abiapuntu bezala, eztabaidera-prozesuan aurrera egin ahal izateko, lau tentsio- edo kontraesan-ardatz proposatzen ditugu. Gehiago egon badaitezke ere, lau eztabaidera-lerrook konfluentzia estrategikoa baldintzatzen duten arazo eta oinarrizko kontraesanek zeharkatuta daudela

deritzogu. Era berean, egun mahaigainean dirauten eta ibilbide historiko luzea duten eztabaidea-lerroak dira, ezagunak izango zaizkigu gehienak, beraz:

